



Debagoienako Bagara prozesua

HERRIGINTZA KOOPERATIBISMOTIK

- **Zinema** Bigarren planoko aktoreak, rol handiaren zain
- **Aldiri** Arkitekturari buruzko lehen aldizkaria
- **Bikoterik gabeko emakumeak** Egoera berriak, estereotipo zaharrak
- **Pello Añorga:** «Kapitalismoak gizartea engainatzeko erabiltzen du fantasia»
- **Komunikazio elebiduna** Ulertzen duten erdaldunei, euskaraz



argia

argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean




BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.



EKITALDIAK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

- 4 Deabruaren abokatua: Jose Antonio Perez.**
Aritz Galarra.

Asteko gaia

- 5 Elebitasun pasiboa. Zuk egin erdaraz, nik euskaraz**
egingo dizut. Onintza Irureta.

Pertsonaia

- 10 Pello Añorga: "Hitzak eta irudiak**
kartzeletatik ateratzea da
nire lana". Uxue Alberdi.



Pello Añorga.

Iritziak

- 18 Ttakun (h)errenka. Obra biziak.** Ixiar Rozas.
19 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
20 Gaixotasun psikiatrikoen tratamenduak.
Felix Zubia Olaskoaga.
Udaberria. Igor Estankona.
21 Gure aukera. Ixabel Etxeberria.
Urrunetik dator. Joxemari Ostolaza.
22 Bertso berriak. Jaitsi... Xabier Paya.

Erdiko kaiera

- 23 Zinema. Pertsonaia txikien antzezpen handiak.**
Mikel Garcia.
26 Aldiri aldizkaria. Eraikinek euskaraz hitz egiten dute.
Uxua Larretxea.
30 Liburuak. Gema Lasarte
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Mikel Asurmendi.
35 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
36 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 44 Makina-erreminta. Urte beltza, iazkoa bezala.**
Daniel Udalaiz.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta
eta Xabier Letona.

39 | Bagara elkarteak | Xabier Letona

Martxoaren 11n aurkeztuko dute, Arrasaten, Bagara elkarteak, kooperatibismoan urrats bat harago egiteko asmoa duen ekimena. Duela mende erdi hasitako prozesua XXI. mendera egokitu nahi dute, orain arte behar bezala landu ez dituzten alorrei arreta eskainita. Kooperatiba mugimendua gizar-tea aldatzeko tresna bihurtu nahi dute.



16 | Bikote gabeko emakumeak XXI. mendean Izaskun Jauregi

48 | Net Hurbil Pello Zubiria

50 | Azkena Inma Errea

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan den asteko ARGIA, Asteko Gaia atalean, Andrew Wakefield medikuaren artikulua bat aipatu genuen; modu okerrean genioenez, artikulua horretan Wakefieldek BCG txertoaren eta autismoaren arteko lotura zegoela adierazi zuen. Izatez, txerto hirukoitz-birikoa da Wakefieldek autismoarekin lotu zuena, eta ez BCGa.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparraldeko Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Iñigo Azkona.

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua	 GIPUZKOA zurekin, aurrera	 euskaraz hai
 kutxa		

“ETA nahiz Juan Carlos I.a Francoren asmakizunak dira”

Jose Antonio Perez | Zikiratzailea

Ahoan bilo bat aurkitu zuen behin
eta laserrarekin kendu zioten.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zer, zigarreta erretzen? Orain aprobetxatu, hemendik gutxira legez kanpo utziko zaituztete.

XXI. mendeko erretzailleok gara, minbiziarekiko, 80ko hamarkadako maritxuak HIESarekiko izan zirena. Hemendik gutxira aterako dira kalera Birika Zuriaren Poliziak, makila eta argizuziekin.

Seguru izorratzeko erretzen duzula, ezta?

Ez duzu asmatu, bada. Adikzioagatik erretzen dut.

A, ulertzen dut: umorea egin daiteke gauza guztiekin, norbere buruarekin izan ezik?

Umorea *egin behar da* norbere buruarekin. Mi Mesa Cojea blogean hainbat sarrera eskaini dizkiet gehien eta ondoen iraindu nauten iruzkingileei. Osasungarria da.

Grazia egiten dit umoregile esaten dizutenean; zu probokatzaille hutsa zara!

Gauza okerragoak ere esan dizkidate. Behin, adibidez, kazetari. Horrelakorik!

Gustuko dut sarri diozun gauza bat: umorea kritika dela. Baina ez dakit sinesten dizudan...

Pertsona jakin batzuk transzendentziarekin kritikatzek intelektualki beheratzen zaitu. Adibidez, ezin duzu Pepe Blanco sozialistarekin eztabaidatu zeure burua umiliatu gabe. Gisa horretako pertsonak Jainkoaren opari dira umoregileentzat. “Ostia zaku” esaten diet nik.

Aizu, nola daramazu besteei egindako elkarriketengatik ezagun izatearena?

Okerragoa da jendeak zu ezagutzea egunkari bat zuzendu eta behin puta batekin larrutan egiteko gerruntze gorri bat jantzi zenuelako.

ETako burua, Jainkoa, Erregea (Espainiakoa, noski). Zer egin dizute haiek hainbeste kritikatze?

Hiru horiek, zehazki, nazka ematen didate, ikono faxistak direlako. ETA nahiz Juan Carlos I.a Francoren asmakizunak dira. Eta Jesukristo eskuinarena.

Feeling berezia nabaritu nuen Patxilorekin izandako elkarriketan.

Bai, egia da. Baina azkenaldian urrundu egin gara, ardura postuetan jende ergela jartzeko daraman ildo estrategikoarekin bat ez natorrelako.

Zenbat irakurle galduko ditut elkarriketa honekin?

Batzuk bai, baina moral onekoak besterik ez. Moral eskaseko irakurle asko irabaziko duzu, aldiz, eta hori askoz ere interesgarriagoa da (zurretzat) ikuspuntu sexualetik.

Ba, eskuin muturrekoa izateko, nahiko sinpatikoa dirudizu...

Ohetik jaikitzen naizenean baino ez nauzu eskuin muturreko. Eskubide zibilekin adiskidetu ohi naiz lehen kafearekin. ■

• ASTERO GAIA •

Elebitasun pasiboa

Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dizut

Euskaraz hitz egin ez baina ulertzen duenari egiten al diogu euskaldunok euskaraz? Berari mihia askatzen laguntzen al diogu? Hizkuntzen arteko urruntasunak nolako eragina dauka?

Elebitasun pasiboa delakoak aukerak zabaltzen dizkie euskal hiztunei, eta erdaldunei euskarara hurbiltzeko parada eman.

ONINTZA IRURETA



Elebitasun pasiboa

IV. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAREN arabera, 2006an arabarren laurdena elebiduna zen, %17,8 elebidun hartzailea eta %57,3 elebakar erdalduna. Euskal hiztunak erdaldunari eta elebidun hartzaileari gaztelaniaz egingo balie, 217.278 arabarri egingo lieke. Aldiz, elebidun hartzaileek euskara ulertzen dutela kontuan hartuta haiei euskaraz egingo balie, 165.759 arabar elebakarri egingo lieke gaztelaniaz. Aldea badago.

Papereko kalkulu hotza baino ez da, baina elebitasun pasiboaz hitz egiten hasteko aztarnaren bat edo beste ematen du. Alegia, euskal hiztunari euskaraz aritzeko aukerak biderkatzen zaizkio elebidun hartzaile edo pasibo izendatutako horiei ere euskaraz eginez gero. Beste gauza bat da zenbateraino baliatzen ditugun dauzkagun aukerak. Zenbat aldiz entzun edo esan dugu, “ez du euskaraz egiten, baina dena ulertzen du, e!” . Eta ez diogu euskaraz egiten.

Ez dakienari euskaraz egitea ez da onuragarria euskara hiztunarentzat soilik, baita erdaldunarentzat eta euskara ikasten ari denarentzat ere. Euskarara hurbiltzeko modua litzateke ulermena lantzea, gero poliki-poliki, hitz egiten hasteko, EGA mailako euskara lortu arte zain egon gabe. Beldurrak, lotsak... beti mahai gainean ditugu.

Sentsazio horien berri ederki adierazi zigun Durk Gorterrek, soziologo herbeheretarrak, ARGIA egindako elkarrizketan (2188. zbk., 2009-06-14). Bera Euskal Herriko Uni-

Elebitasun pasiboa terminoa darabilgu hemen, baina batek baino gehiagok adierazi digu terminoa ez dela batere egokia

bertsitatean ari da lanean eta euskara eta gaztelania ikasten ari da. Hizkuntza kontuez ari zela ondokoa esan zuen: “Oso deigarria egin zait hemen, jendeak ingelesa erabili aurretik *“my english is not very good (nire ingelesa ez da oso ona)”* esaten dizula. Nik uste jendearen iritzia dela, maila bikaina izan arte, ezin dutela erabili. Ez da inolaz ere egia. Erabiliz ikasten da!”. Eta euskarari buruz: “Euskaltegiko ikasleak hanka sartzeko beldur dira. Garrantzitsua da testuingurua kontuan hartzea. Nik elkarrizketa hau ezin dut gaztelaniaz edo euskaraz egin, ez dut nahikoa mailarik. Testuinguru honetan garrantzitsua da niretzat ongi azaltzea. Baina beste testuinguru batzuetan euskara edo gaztelania erabili egin behar ditut ikasiko badi-tut. Hemengoa oso fenomeno interesgarria iruditzen zait, arrazoi konplexuek eragindakoa”.

Pasiboa baino, aktiboa

Elebitasun pasiboa terminoa darabilgu hemen, asko zabaldutako terminoa delako eta errazago aritzeko, baina batek baino gehiagok adierazi digu terminoa ez dela batere egokia. Bi hiztunek elkar komunikatzeko ahalegina egiten duten momentutik, jarrera pasiboa baino aktiboa da. Eta horrekin lotuta dago distantzia linguistikoa kontua. Koldo Biguri itzultzailearen hitzak dira ondokoak: “Euskarak ez dauka inguruko hizkuntzen antzik, ulertezina da beste hizkuntzetako hiztunentzat, eta horregatik elebitasun pasiboa deitzen den hori ezinezkoa izan da hemen. Elebitasu-

Guraso bilerak Karmelo Ikastolan



Begoña Ocio,
Karmelo Ikastolako
zuzendaria.

Begoña Ocio Bilboko Santutxu auzoko Karmelo Ikastolako zuzendaria da. Gurasoekiko harremanean hizkuntza kudeaketa nola egiten duten azaldu digu. Guraso bilerak hartu ditugu adibide. Bilerak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dituzte, informazio bera bi hizkuntzetan. Guraso euskaldunek eskatu izan dute erdaldunak eta euskaldunak banatzea eta bi bilera egitea, baina Ocioen ustez, hori ez da bidea. Haien asmoa urte bereko haurren gurasoak bileretan batera izatea da, informatzeko eta elkar topatzeko.

Bilerak pisutsuagoak dira, bi hizkuntzetan dena errepikatzen delako —beti ere irakaslearen abildadearen arabera—. Galdera-erantzunetan bestela jarduten dute, euskaraz egindako galderak euskaraz erantzuten dira eta hartu-eman gaztelaniara itzultzen da baldin eta norbaitek eskatu badu.

Erdaldunek jarrera ona dute orokorrean, badakite zein eskoletara bidali dituzten haurrak. Gainera, ohitu egiten dira bilerak molde horretan egitera.

Idatzizko oharra euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen zaizkie gurasoei, eskatu duten aukeraren arabera. Halaber, gutxieneko kontzeptuak ez dira itzultzen; esate baterako, otsaila-febrero ez da jartzen, asteko egunak ez dira itzultzen...

Eskola Kontseiluan denak euskaldunak dira bi ezik. Bilerak euskaraz egiten dira. Euskaraz pata dabilta-nek zerbait ulertzen ez badute esan egiten dute eta azaldu egiten zaie.

naren ordezkuntza ordezkapena jasan izan dugu aurreko mendeetan, eta oraindik ere ari gara jasaten". Esate baterako, katalanaren eta gaztelaniaren arteko distantzia linguistikoa askoz ere txikiagoa da eta katalanak aspalditik saiatu dira aukera hori baliatzen. Norberaren hizkuntza albo batera utzi gabe bizitzen eskarmentu handia dauka Ferran Suay psikologo valentziarrak. Euskal Herrian ezagunak dira bera eta Gemma Sanginés emaztea, TELP tailerrak (Taller d'Espai Lingüístic Personal) eman izan dituztelako. Suayren blogean irakurri dugu duela gutxi gertatu zaiona: autoa bateriarik gabe geratu eta auto aseguruari deitu dio. Telefonoaren bestaldekoarekin hiru-lau elkartruke egin ditu eta norberak bere hizkuntza mantendu du, Suayk katalana eta auto aseguruak gaztelania. Orduan aseguruak langileak: "Barkatu, ez dizut valentzieraz egiten, gaztelaniaz erosoago nago". Suayk esan dio ez dagoela inolako arazorik, berak gaztelaniaz oso ondo ulertzen duela, eta bere egoera berean aurkitzen dela, hau da, erosoago ari dela valentzieraz gaztelaniaz baino.

Valentziarrak blogean anekdota xume hori kontatu du hiru kontu interesgarri ikusi dizkiolako: hizkuntza desberdinetan ari diren bi hiztunek egoera erraz konpondu dutelako, inolako iskanbilarik gabe, eta bietako inork hizkuntza aldatu beharrik gabe. Langileak ez zuen esan valentziera ez zekienik, baizik eta gaztelaniaz erosoago sentitzen zela eta hori —dio Suayk— eztaba daezina da. Era berean, besteari (kasu honetan bezeroari) ez dio eskatzen hizkuntza aldatzeko. Suayren ustez, langile hura edukazio onekoa eta argia izan zen, egoera elegantziaz bideratu zuen.

Hizkuntza alternantzia txarto ikusita dago

Esti Amorrortuk, hainbatekin batera, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila) liburua idatzi zuen iaz. ARGIAN egindako elkarrizketan (2207. zbk., 2009-11-22) ondokoa esan zuen: "Pertsona bat nahiz eta euskaldun oso ez izan, ulertzeko gai bada, zergatik hitz egingo dugu gaztelaniaz? Nik euskaraz eta berak gaztelaniaz saiatu beharko genuke edo gauza errazago-

Oskar Elizburu, AEK-ko irakaslea



Ardura ikaslearena: "Ikasleek beldur eszenikoa dute: 'Erakusten badut euskaraz zerbait ulertu dudala usteko dute dena ulertzen dudala eta ez da horrela...'. Lotsa sentitzen dute. Guk argi eta garbi esaten diegu ardura beraiena dela, harro adierazi behar dute

euskara ikasten ari direla eta laguntza behar dutela. Besteek gaztelaniaz egiten badiete beraien ardura da esatea: 'Euskaraz egin nahi dut, egidazu euskaraz'".

Euskaldunak zer? "Erosoena gaztelaniaz egitea da, elebidunak baikara. Baina ikasten ari denari adierazi behar diogu gu laguntzeko prest gaude. Lagundu beldurra kentzen, ezina arintzen. Esan gauzak poliki-poliki, errepikatu, adierazi keinuez ulertu diozula... Adierazi ez digula axola denbora gehiago pasatzea".

Euskaldun pasiboa: "Ez zait gustatzen termino hori. Pasiboak dira baldin eta ez badute baliatzen euskaraz egiteko duten aukera. Pasiboa baino, maila aktibo asko daude. Pasiboa izatekotan gizartea da, ez gara konturatzen zein potentzial dagoen euskararen erabilera igotzeko. Ez dugu baliatzen. Taldean denak euskaldunak eta bat erdi erdalduna baldin badago zer egiten dugu? Erdaraz. Eman diezaiogun dakien apur hori erabiltzeko aukera, edo guk euskaraz egin".

Errespetua: "Errespetuaren kontua sartu ziguten buruan: 'Gaixoa ez da moldatzen eta erdaraz egingo diot'. Euskaraz ikasten ari denari euskaraz egiten badiogu ez dugu ataka estuan jartzen, zubiak eraikitzen ari gara. Eman konfiantza, txalotu, animatu".

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net





UDAL EUSKALTEGIA
Miguel Zabaleta 14. 20100 Errenteria
Tel.: 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Enpresetako esperientziak



Enpresa bateko lankideak talde dinamika egiten.

Oñati eta Antzuolako (Gipuzkoa) kooperatibetan ibili gara galdezka, ea hizkuntza kudeaketa nola lantzen duten. Horietan euskara planak ezartzen dituen Emun kooperatibak eman dizkigu azalpenak.

Kontuan hartu behar da kooperatiba horietan euskararen ezagutza maila %75-85 artekoa dela. Emunek aholkuak ematen dizkie enpresei eta gero beraiek dira erabilera irizpideak adosten dituztenak. Adibide bat baino gehiago azaldu digute non langileek eta organoek erabaki duten batzar nagusian, kontseilu errektorean edo alorrekako kontseilutxoetan euskaraz aritzea. Jakina, ahaleginak ugariak dira eta beti ez da lortzen euskarak lehentasuna izatea. Ahozko hartu-eman horietan euskaldunek (ia denek) euskaraz egiten dute eta erdaldunak gaztelaniaz aritzen dira. Batzuetan *power point*ak gaztelaniaz ere izaten dira. Enpresa batean esate baterako, lanorduen jarraipenerako aplikazio informatikoa euskara hutsean jarri dute. Aldi batez gaztelaniazko hiztegitxoak izango du alboan lagungarri, baina gero kendu egingo dute.

Euskaldunak: Motibazio handia behar dute erdaldunen artean euskaraz aritzeko. Alabaina, hasieran behartua dena (euskaraz egitea) natural bihurtzen da gero, eta erdaldunek onartzen dute egoera berria. Hau da, euskarak pausoak emateko euskal hiztun motibatuak behar dira. Erdaldunek berriz, euskara ulertzeko gai izan eta hizkuntz moldaketak onartzeko prest egon behar dute.

Xuxurlatze teknika: Erdaldunak euskara pixka bat baldin badaki, ondoan jarri eta norbaitek, ulertzen ez dituen bilerako pasarteak itzul diezazkioke. Dena ezin da xuxurlatu, hori interpretarean lana litzateke, ezer ulertzen ez duenari itzulpena egitea, alegia.

Hiperleialtasuna fenomeno linguistikoa: Erdaldunen aurrean egonda ere euskaraz aritzea esan nahi du. Gerta liteke kafe makinan lau langile solasean aritzea, hiru euskaldun eta erdalduna. Hirurak euskaraz ari dira. Euskaldun hiperleialak, alegia.

Zuk natural-natural egiten duzu katalanez lehen hitza.

Mundu guztiari hitz egiten diot katalanez eta jende askok erantzuten dit gaztelaniaz. Hori da gizarte katalanaren eta euskaldunaren arteko diferentzia garbienetakoa, distantzia linguistiko ospetsua. Hizkuntzen gertutasunagatik pentsatzen dut besteak ulertzen didala. Gehiengoak ez dit esaten ez nauela ulertu eta hala esaten didatenean ere, nik uste dut ulertzen didatela. Proba egiten dut, katalanez segitzen dut eta esaten diot: "Ez duzu ezer ulertu?" eta erantzuten badit ezetz bada ulertu dit eta jarrai dezaket katalanez.

Euskararekin ez bezala, hizkuntzalariek diote %80ko ulertze gaitasuna dagoela gaztelania-katalanaren kasuan, katalana ezagutu gabe ere.

Katalanez segitzen duzunean bestea ez al da deseroso sentitzen?

Moldatuko dira. Nire arazoa da ni deseroso ez sentitzea.

Ez zaitu bere hizkuntzara eramaten?

Ez. Ohikoena da berak berera eramatea, bateratasuna bilatzea. Hizkuntza bat baino gehiagotan ari garenean gertatzen zaigu hori, baina baita hizkuntza bereko erregistroekin ere. Baserri-tarrarekin hitz egiterakoan eta hitzaldia ematerakoan ez zara

ak esateko euskaraz eta zer edo zer ez badugu ulertzen gaztelaniaz eta gero berriro euskarara pasatu. Ez diogu eskolan, baina lagunartean zergatik ez erabili hizkuntza bat baino gehiago? Itxaron behar badugu koadrilako denak euskaldun oso izan arte sekula ez dugu euskaraz egingo". Aitor du jarrera preskriptibistek indarra izan dutela eta dutela, alegia ez dagoela ondo ikusia bi hiztun norbera bere hizkuntzan aritzea edo hiztun bakarra hizkuntza batetik bestera igarotzea. Aldiz, Amorrortuk dio hizkuntza alternantzia baliatu egin behar dela. Mendebaldeko herrietan ez, baina hizkuntza aniztasuna aspaldikoa den herrietan, Kamerun edo Indian esate baterako, Amorrortuk dio jendeak zazpi hizkuntza dakizkiela eta denak erabiltzen dituela; bat halakorekin, bestea bestelakorekin, gero solaskide bakarrarekin hizkuntza bat baino gehiago... arazorik gabe.

Bizkar-zorroa beteta daukagu, arindu beharrean, bai euskal hiztunek, bai bidean direnek eta ez direnek. Hor dira lotsa, beldurra, errespetu kontuak, pazientzia eza, erosotasuna... Edozein urrats, txikia izanagatik, da onuragarri hiztunentzat, beti ere eta Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaileak esan digun moduan, jomuga euskaraz biziko diren euskaldun osoak direla. ■

Ferran Suay psikologoa

“Eutsi besteak ‘no entiendo’ esan arte, bere gaitasun eza erakutsi arte”



Ferran Suay valentziarra Euskal Herrian eskaintako TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) ikastaroetako batean.

berdin aritzen. Hizkuntza guztietan saiatzen gara beste hiztunarenera doitzen. Gurean ordea, doiketa beti guk egin behar dugu eta halako batean “aski da!” esaten duzu. Beti zuk bilatzen baduzu bateratasuna hark inoiz ez dauka beharrik zure hizkuntza ez ulertzeko eta ez jakiteko.

Segi duzu katalanez eta bestea saiatzen ari da, baina laguntza eskatzen dizu. Askotan gertatzen zaizu?

Oso gutxitan, laguntza nik eskaintzen dut: hitzen bat ulertzen ez baduzu esaidazu eta itzuliko dizut. Jendaurrean esaten dut norbaitek gaitasunik ez badu zer edo zer ulertzeko, esateko. Eta jendeak nola inoiz ez duen izan nahi gaitasun gabea sekula ez du ezer galdetzen. Kontuan izan besteak ia dena ulertzen duela.

TELP tailer ugari eman duzu Euskal Herrian. Nola erantzun du jendeak?

Askok pozez. Jendeak helburu zehatzak hartzen ditu, nahiz eta xumeak izan. Alabaina, aldaketak elur bola bilaka daitezke. Orain oso zaila litzateke nik eta beste askok egiten duguna Euskal Herrian norbaitek egitea. Ezin duzu onartu ulertzen zaituzte-l. Erdibideko helburua izan daiteke jende asko sistematikoki euskaraz hastea eta ez aldatzea lehenengoan. Bestela, segituan gaztelaniaz egiten badiozu, ez da konturaturako zuretzat gaztelaniaz egitea ahalegina denik. Alegia, euskaraz ezjakina izateak nolabaiteko kostua izan dezala. Eutsi besteak “no entiendo” esan arte, bere ahuldadea erakutsi arte. Garbi gera dadila bere gaitasun eza dela arazoa. Mailarik okerrera da euskalduna gaztelaniaz hastea, justifikatzen ari da euskararen beharrik eza eta bestea oso lasai geratuko da.

Maite Zipitria eta Arrate Arozena, Elhuyar Aholkularitzako teknikariak



Herritarren parte hartzeari buruz egindako jardunaldiak Donostian.

Ni eta euskara. “Enpresetan, euskara planetan besteak beste, taldeak osatzen ditugu eta eskatzen diegu jaiotzetik euskararekiko dituzten bizipenak kontatzeko. Pentsatzen eta sentitzen dutena mahai gainean jartzeko eskatzen diegu, hizkuntzaren gaia ez baita agerian jartzen, tabua da. Aurreiritziak, lotsak, beldurrak atera nahi izaten ditugu eta ondoren sare berria eraikitzen saiatu. Ohikoena da bi komunitateen artean (euskalduna eta erdalduna) gai hori saihestea”.

“Ez didate euskaraz egiten”. “Perlak ateratzen dira bilgune horietan. Prozesua amaitu eta urtebetera zer moduz joan zen jakiteko bildu eta batek hala esan zuen haserre aurpegiarekin: ‘Euskara ikasten ari direnek egiten didate euskaraz, euskal hiztunek ez’. Eta euskal hiztunen erantzuna, ia-ia barkamen eske: ‘Ez nuen uste hainbesteko grina zenuenik’. Behin baino gehiagotan bilkura horietan konturatu dira albokoak euskara bada-kiela, eta urteak daramatzate lanean elkarrekin”.

Naturaltasunez. Lan munduko euskara planez gain, erakunde publiko zein enpresa pribatuentzat parte hartze prozesuetan aritzen da lanean Elhuyar Aholkularitza. Gaia hizkuntza ez duten jardueren taldeak dira, baina ezertan hasi aurretik hizkuntza mahai gainean jartzen dute: “Denek euskaraz dakiten ala ez galdetzen dugu. Hala ez bada proposatzen dugu norbera eroso sentitzen den hizkuntzan aritzea. Tartean behin galdetzen dugu ea ondo moldatzen ari diren euskaraz ondo ez dakitenak, itzulpen laburrak ere egiten ditugu. Hizkuntzaren gaia mahai gainean jartzen dugu naturaltasunez, beldurrez bazoaz, zer edo zer gaizki egitera bazindoaz bezala, edo mesede eske bezala, parekoak hala jasotzen du. Alabaina, esaten baduzu bakoitzak eroso sentitzen den hizkuntzan egin ahal duela zeinek esan behar dizu zer?”.

«Hitzak eta irudiak kartzeletatik ateratzea da nire lana»

Hainbeste bidaiatu dugu Pellorekin, hainbeste ibili gara, geldi gelditu baikara,
so, eta esan baitugu ixo.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

**“Bazen behin Pello Añorga izeneko haur bat”
esango banizu?**

Bazen behin Pello Añorga izeneko haur bat... haur izaten jarraitu nahi duena. Haurra izaten heldutasunetik, haurra falta baldin bazaigu zahartu egiten baikara. Nik aipatzen dudana haurra arketipo bat da: begiratzeko modu bat, eta haurraren dimentsioan sartu daitezke emozionatzeko gaitasuna, gauza berriak egitea, liluratzea, bidaiatzea, galtzea, harritzea, maitatzea, maitemintzea, gaizki egotea... Bizitzarekin konektatzea. Horri guztiari deitzen diot haurra. Mirot esaten zuenaren ildotik, Oteizak esaten zuenaren ildotik... Haur hori.

**Zure lehenengo haurtzaroan ze leku zeukan
ipuinak?**

Ez leku berezirik. Umetan dimentsio guztietan bizi nuen dena: kanpoan, barruan... Heldu ahala hasten gara bereizketak egiten: hau fantasia da, hura ipuina da, hau egia, bestea gezurra... Muga horiek, kontzeptu horiek gero etortzen dira, baina txikitan bizitza dimentsio guztietan bizitzen da, kontzepturik gabe. Hori da lehenengo haurtzaroa. Alderdi intelektuala, galderak egitea, geroago hasten da. Lehen haurtzaroan amonaren eskutik kanpora atera eta Txinara joaten ginen. Txina kardaberak hori-hori jartzen ziren garaia zen, eta guk petaloekin masailak margotzen genituen eta Txinan ginen, Txinan sentitzen ginen. Halako esperientziak asko markatu naute, eta kontatzerakoan erritoei izugarritzko garrantzia ematen diet nik ere: nola hasi, nola bukatu... Bigarren haurtzaroan haurra abenturetan parte hartzen hasten da. Orduan hasten gara gure buruari galdetzen: zer da egia? Zer da gezurra? Non dago muga? Bizitza misterioz beteta dago, eta lilura hori beharrezkoa da. Gerora

konturatu naiz nire abentura guztia haurrak dimentsio horretara eramatea izan dela: zer da gezurra? Zer da egia? Eta baita poesiaren dimentsiora ere. Hitzaren dimentsioa ezinbestekoa da, hitzak munduak irekitzeko balio baitu, eta baita ixteko ere, zoritxarrez. Hitzek erritmoa dute, eta irudia. Nik hitzen bidez ikusi egiten dut, ikusmena ematen didate: bisioa. Hitzek begiak dituzte. Horregatik gus-tatzen zait ipuinak kontatzea: haurrak dauden lekuan presentzia gehiagorekin egon daitezen, hitza erabil dezaten, eta hitzek dituzten begien bitartez paisaia berriak aurkitu ditzaten. Hori gertatzen den bakoitzean haurrak hainbeste bidaiatzen du, hainbeste ibiltzen da, azkenean geldirik geratzen baita, eta dena da so, eta orduan esaten du: ixo. Hau oso Zen da, presentzia guztiarekin egotearekin du zerikusia. Egonean egotearekin. Egoten jakitearekin. Hori ezinbestekoa da munduarekin konektatuta egoteko.

**Egia eta gezurraren arteko muga aipatu duzu,
eta Julio Cortazarrek esaten zuen bere txikita-
ko traumatiko bat zela ohartzea, errealtate-
aren eta fantasiaren arteko muga ez zegoela
leku berean beretzat eta gainerako guztien-
tzat. Beretzat erreala zirela besteek fantasi-
kotzat zituzten gauzak.**

Horregatik esaten da euskaraz “egia? Sudur ondoan begia. Gezurra? Begi ondoan sudurra”. Non dago muga? Izakiok mundua etengabe barnetik eta kanpotik bizi dugu. Kanpo-

Nortasun agiria

Pello Añorga Oiartzunen jaio zen 1956an. Irakasle hasi zen Oiartzungo ikastolan, eta han hasi zen hurrei ipuinak kontatzen. Bi hamarkadatik gora daramatza ipuin kontalaritzan. Fantasiak sendatu zuen, eta fantasiarekin sendatzen saiatzen da.



• PERSONAIA •
Pello Añorga



tik bizi dugunean proiektatu egiten gara eta hitza erabiltzen dugu proiektatzeko. Hitza, ipuina, artea oro har, gizakiok proiektzioarako aurkitu ditugun lanabesak dira. Errealitatea ulertzeko bi plano daude: alderdi arrazionala eta irrazionala. Batzuek kontzeptuaren bitartez erabiltzen dute hitza: hau erramua da, hori hodeia, hura Bianditz... Horiek gauza objektiboak direla diogu, denok hala deitzen diegu-lako erramuari, hodeiari eta Bianditzi. Baina badago hitzaren beste dimentsio bat, artearen dimentsioa dena, eta hori sinboloa da. Sin-boloa. Errealitateak lotzeko balio duena. Baina artifizio hutsa da! Munduan izan diren bisio guztiak, profetenak, politikariak, lider espiritualak... zer dira? Horiek guztiek hitza dimentsio sinbolikoan erabili dute. Hitzak izendatzeko balio dezake, baina artearen dimentsioan hitzak lotzeko balio du, uztartzeko, sinbolizatzeko, zubi lana egiteko. Badira sinbolo batzuk oso indartsuak direnak eta kolektibo oso bat errealitatearekin lotzeko balio dutenak. Nola sortzen dira mitoak? Ba, halaxe, eta garbi dago mito batzuk behar ditugula, non denok proiektatuko garen. Baina munduan edozer gauza izan daiteke ispilu:

ura, hodeia, zure sudurra, zure ilea... Edozer, gertatzen dena da batzuk ispilu batzuetan sentitzen direla proiektatuak, identifikatuak, eta beste batzuk ez. Batzuek ikusten dute eta beste batzuek ez dute ikusten. Ni bizitzan ispiluak jartzen saiatzen naiz, baina badakit ezinezkoa dela nire ispiluek denentzako balio izatea.

Fantasia manipulaziorako ere erabil liteke, ordea.

Bai, badago beste fantasia mota bat: hitza, fantasia bestea engainatzeko erabiltzea. Hori haurrekin askotan egiten da, erabat engainatzen ditugu. "Ikusten horko basoa?", esaten diegu, "baso horretan bizi da Benito otsoa". Eta zuk ez duzu horretan sinesten, baina hitza erabiltzen duzu haurra engainatzeko. Zure hitza zuritzen ari zara. Niretzako hitz horrek, fantasia horrek ez du ezertarako balio. Hori da, hain zuzen, gizarte kapitalistak erabiltzen duen engainu modua. Kapitalismoak gizartea engainatzeko erabiltzen du fantasia. Beldurra bitartez. Niri alderdi hori ez zait batere interesatzen, ez naiz dimentsio horretan sartzen. Jende asko sartzen da horretan, fantasia

bere konbenientziarako erabiliz, eta Benito otsoa edozein lekutan jartzen dute, beldurra sortzeko eta manipulatzeko.

Benito otsoa ez da leku guztietan existitzen, baina existitzen da?

Jakina baietz. Eta galdetzen badidazu Olentzero existitzen den ala ez, Olentzero? Jakina existitzen dela! Nola ez da, ba, existituko? Olentzero arketipo bat da, sinbolo bat, alderdi jakin batzuekin lotzen gaituena. Zu ere Olentzero zara, eta doan emateko ahalmena duzu. Haurrak behar du arketipo hori, sinesteko badela sinbolo bat, badela norbait doan emango diona. Existitzen da! Baina hori plano sinbolikoan ulertu behar da, sinbolo horrek errealitatearekin lotuko zaitu. Batzuek sinboloa uztartzeko erabiliko dute eta orduan sin-bolo izango da, eta bestela, ordea, dia-bolo izango da, bereizteko erabiltzen bada. Banatzeko. Edo ez da ezer izango. Arteak horrela funtzionatzen du. Ni margo-lanak ikustera noanean, batzuek errealitatearekin lotzen naute, beste batzuek bereizi egiten naute, eta beste batzuek ez naute ez lotzen ez bereizten, ez ditut ezerekin identifikatzen. Ba, fantasia berdina. Gizakiok ez baitugu beste modurik errealitatea hautemateko.

Zergatik hasi zinen kontatzen?

20 urterekin ipuinak kontatzen hasi nintze-nean fantasia zauri batzuk nituelako erabiltzen nuen. Konturatu nintzen une batean pertsona batek min egin zidala, beste batek ere min, eta min hori gainditzeko fantasia sortzen nuela, gazteluak sortzen nituela. Eta gaztelu horiek fantasmak ziren, ez konfiantzan eraikiak, beldurrean baizik, eta errezelo txarretan. Leku horretan ez dago maitasunik. Harrigarria izan da konturatzea fantasia nire burua defendatzeko sorturiko mekanismoa zela.

Orain ere hala da? Zure ezkutua da fantasia?

Ez, orain ez dut hitza defendatzeko erabiltzen, eskaintzeko baizik, emateko, maitasun guztia-rekin. Baina hori bigarren fasea da, eta horrek hustea eskatzen du. Hustu-bete-hustu. Artea maitasunez eskaintzeko adin bat behar da, aurretik zenbait gauza hustu behar dituzu, eta husten zarenean ez duzu hitzekin lan egiten: hitza zara. Hor dago mistika. Batzuetan defentsarako behar dugu sorkuntza, baina sorkuntza lana eskaini egin behar da, eta horretarako erabat biluztu behar duzu eta dena eman behar duzu, ehuneko ehun. Ezin duzu ezer gorde. Dimentsio horretan zaude-nean dena proiektatzen duzu eta dena da opari, edozer gauza proiektatu daiteke, baina horretarako ezinbestekoa da hustea. Ikusten duzu? Argia aldatzen ari da. Hemen gaude baina begira eguzkia nola ari den aldatzen. Ni

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com



Finalaurrekoak:

Martxoaren 7an

ATARRABIAko

Indurain Anaiak
Kiroldegian

17:30ean

Jon Barberena
Arkaitz Goikoetxea
Oier Lakuntza
Eneko Lazkoz
Jon Elizetxe
Aimar Karrika

Nafarroako
Bertsozale
Elkartea



Laguntzailea:



argia

hizketan ari naiz baina ni argia naiz. Konektatuta zaudenean dena sumatzen da. Zu dena zara. Dena zara zu. Orain besteentzat egiten dut lan: maitasun ekintza da. Horretarako beharrezkoa da gardentasuna, baina garden izateak lan handia eskatzen du. Zure sentimenduak nola dauden jakitea. Horra iristeko zure demonioak oso ondo ezagutu behar dituzu. Bide honetan nire lagunik handiena demonioa izan da. Demonioa arketipo gisa. Eskua ematen diozu, begiratzen diozu begietara eta momentu horretan urtu egiten da demonioa.

Kontatzeak lagundu dizu demonioei beldurra galtzen?

Bai, kontatzen hasi nintzenetik bide osoa egin dut. Oteizaren bi faseak oso ondo ulertzen ditut zentzu horretan. Lehendabizi zure demonioak proiektatzen hasten zara, garrasika, eta haizea hartzera bidaltzen dituzu denak, ostikoak ematen dituzu... Baina gero zarata horrek isiltzera egiten du. Bide terapeutikoa da: hustu betetzeko. Eta gero barre egiten duzu. Barrura-barrura-barrura baina kanpora-kanpora-kanpora. Benetako komunikazioa barrua eta kanpoa bateratzen direnean gertatzen baita. Barruan dagoena ere oso kanpoan dago eta kanpoan dagoena oso barruan.

Konexio hori, benetakotasuna, beti da posible?

Nik ere betelana egin izan dut batzuetan, eta badakit halakoetan gezurretan ari naizena, besterik gabe teknika bat aplikatzen, baina kontziente naiz, badakidalako egun horretan, zoritxarrez, ezin dela gehiago egin. Umorez hartu behar da. Hori maskarekin lan egitea da, eta batzuetan behar ditugu maskarak!

Zein da mozzorro hori?

Teknika. Badakizu funtzionatuko duela eta erabili egiten duzu, aktibatu eta aurrera. Baina benetako komunikazioan abandonatzen jakin behar duzu. Dakizuna uzten, husten jakin behar duzu. Mozzorroa ezagutzen duzun leku bat da. Kontrola. Batzuetan kontroletik egiten duzu lan, eta momentu horretan lan egiten duzu ertzain batek lan egingo lukeen bezala. Momentu horretan polizia zara. Eta agian jendeak ez du igarriko, baina zuk badakizu polizia zarela. Eta orduan borrak hartu eta erabili egiten dituzu, eta batzuetan beharrezkoa da. Hasieran gaizki sentitzen nintzen maskarak erabiltzearen, baina ikasi egiten da maskarak errudun sentitu gabe erabiltzen. Bai guraso zarenean, bai gizarte honetan zenbait lekutan lan egiten



OFF THE RECORD Zirrikitia

Grabagailuan hitzak soilik sartzen zirela uste genuen, baina zirrikituren batetik sartu zaizkigu aingeru bat, ortzadarra, kardaberak eta bihurrondokoak, demonioa eta Olentzero elkarri eskutik helduta, Kandelario bezperako eguzkia, Oteiza, soineko paristar bat, bizitza eta heriotza. Nola entzun duzu maitasuna, mikrofono sorgina?

duzunean... ezinbestekoak dira. Zenbait lekutan ezin zara biluzik agertu, baina artean eta komunikazioan nahi eta nahi ez biluzik agertu behar dugu.

[Oiartzungo kiroldegiko tabernan ari gara elkarrizketa egiten. Taberna jendez betetzen hasi da, eta tabernaria etorri zaigu esanaz “badago gela bat goian, nahi baduzue, libre dagoela esan didate...”].

Jakina, etorri zarenez gero joan egingo gara, eskerrik asko [tabernariari]. Hau aingeru bat da. Aingeruaren arketipoa. On egitera etorri da, eta kasu egin behar zaio.

[Goiko gelara igo gara]

Haurrak isiltasunera eramatea omen da zure helburua, kontatzen duzunean.

Beti ez dut lortzen, baina hori lortzen dudanean... magia sortzen da. Barrua eta kanpoa: haurrak barrura eramatea oso urrutira bidaia dezaten. Honetan guztian niri ez zait ipuina bera bakarrik interesatzen, interesatzen zait, esaterako, meditazioa ere. Beste dimentsio batzuk aurkitu ditut, otoitzarena, adibidez, baina dimentsio hori ulertzen jakin behar dugu, gure belaunaldiak erlijioarekin izan duen harremana erabat despotikoa izan baita. Sintesi bat egin beharko dugula uste dut, baina otoitzaren dimentsioa garrantzitsua da. Leku batean zaudenean eta bihotz guztia leku horretan jartzen duzunean..., niretzako hori da otoitza. Kontatzen ari naizenean sarri ez dut jakiten zertan ari naizen, otoitzean, meditatzen ala zertan. Niretzako espazio hori espirituala baita. Badakit hau askok ez dutela ulertzen. Gure belaunaldiko- ei erruz kostatuko zaie hau ulertzea, baina ziur naiz etorriko direla belaunaldi berriak espiritualitatean sakonduko dutenak. Behar handia dago.

Teoria modernoek tradizioarekin hautsi dutela esan nahi duzu? Tartean tradizio espiritualarekin? Ni sinestuna naiz, eta Jainkoarengan sinesten dut, baina ze Jainkotan? Hor dago gakoa. Baina espazio espiritualak sortzea beharrezko dugula diot. Hori Oteizak ere esaten zuen lasai arrai! Baita Txillidak ere! Espirituala zentzu horretan: munduko geruza guztiekin konektatzeko leku batzuk sortzea; eta geruza guztiekin diodanean geruza guztiekin diot: kosmosetik hasita gauzarik sinpleenaraino. Nik ez dut Jainko despota batean sinesten! Gertatzen dena da jaso dugun bakarra Jainko despota hori dela. Nire Jainkoa oso-oso maternal da, eta gauza asko da: haurra da, heldua da, edozer gauza da, dena da. Jainkoak ispilu bat dauka eta ispilu horretan edozer gauza proiektatu daiteke. Gazteek energia esaten dute, baina izenak berdin du, Jainkoa hitza ere arketipoa da. Jainkoa existitzen da Olentzero existitzen den bezala, deabrua existitzen den bezala, printzesak eta printzeak existitzen diren bezala. Existitzen da baina ikusezina da, arketipoak beti erantzuten diete sumatu arren ikusezinak diren dimentsioei, eta horregatik egiten dugu artea, dimentsio horiei forma emateko edo gertuago sentitzeko.

Elkar entzuteko espazioak sortu behar direla ere irakurri dizut.

Euskaraz badiugu hitz zoragarri bi: entzun eta erantzun. Eta erantzun hitzaren barruan entzun hitza dago. Hitzak berak adierazten digu ondo erantzuteko ondo entzuten jakin behar dugula. Ez badugu ondo entzuten ezin dugula erantzun, ezin garela erantzule izan eta erantzukizun eskasa izango dugula. Bestela era itsuan erantzuten dugu, eta herri bezala horrela gaude. Gure herriak ezin du entzun, eta nola erantzungo dugu entzun gabe? Erantzuten ari gara, baina era itsuan. Eta eskizofrenia horretan gaude. Burua alde batetik doa, bihotza bestetik eta oinak bestetik. Eta herri bezala ea nola bateratzen

ditugun burua, bihotza eta hankak. Oso gizarte sakabanatuan, kitzikatuan bizi gara. Denbora guztian ari gara "hau nahi dut eta hura nahi dut eta hara noa eta handik nator...". Kontsumitu eta kontsumitu eta azkenean, kontsumitu. Hau da, ahitu. Hain beteta gaude ezin baikara hustu. Eta hau arnasa bezala da: hustu ezean, ezin bete, eta ito egiten gara. Hartu eta eman, hartu eta bota, bete eta hustu... Erritmo horretan dago bizia.

Zergatik daukate hain fama txarra irudimenak, fantasiak, inozentziak...?

Ez ditugulako kontrolatzen. Heldua izatea zer da? Kontrola, ezagutza, manipulazioa. Eta horretarako kontzeptuak behar ditugu, eta kontzeptuz aseta gaude, hitzak finkatu egiten dira, mugak zehaztu, hitzak kartzelatan sartzen dira eta sailkatu egiten dira: definitu. Eta zein da gure lana? Hitzak eta irudiak kartzeletatik ateratzea, bizitza askoz ere askeagoa baita. Horregatik behar dugu heriotza! Heriotzak askatzen gaitu, eskerrak horri, bestela dena jakingo genuke eta dena sartuko genuke kartzelatan. Heriotzak galderen aurrean jartzen gaitu, erantzun ezinezko galderen aurrean, eta horrek ematen digu bizitzeko behar dugun umiltasuna. Bestela dena kontrolatuko genuke. Horregatik gus-tatzen zait asko nomaden tradizioa, sortu eta desegin, hala bizi dira, eta bizitza halakoa da, inferiorik handiena ere desagertuko da haize bolada batekin. Egiten eta desegiten jakin behar dugu. Nomadek gauza bakarra eramaten zuten beti eurekin: sua. Sua bizirik mantentzea da inporta duena. Zikloak: hustu-bete-hustu, egin-desegin.

[Amaitzean... nire edalontzia beteta dago eta Pellorena, hutsa]. ■



Demonioari, inozentziari edota umeen mundu imajinarioari buruzko gogoetak, elkarrizketaren bertsio luzean.

Abadiñoko emakumeak.
aniztasunetik
barruntasunera
martxan!

2010eko martiak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna EGITARAUA

- Martiak 8, 17:30, Errota Kultur Etxean
Kartel lehiaketaren SARI BANAKETA
- Martiaren Setik 18ra Errota Kultur Etxean
Kartel lehiaketara aurkeztutako lanen
ERAKUSKETA
- Martiak 8, astelehena
17:00 ORRAZKERA AFRIKARRAK egiteko
sukera Trafal-Matienako plazazko kioskoan edo
Eskoletako gimnasioan
17:30 Mundu Martxarekin bat egiteko
MURALA egiteko da
18:00 KALEJIRA BoTaPa samba taldearekin
19:00 TXOKOLATADA Frontolan
- Martiak 10, eguztiena, MUNDU MARTXA
Zamotzatik pasatzen da
- Martiak 10, eguztiena, EMAKUMEEN MUNDU
MARTXA
21:00 Zamotzatik pasatzen da
- Martiak 11, eguztiena, 18:00etan
Errota Kultur Etxean
ZINE-FORUM "La vida secreta de las abejas"
Hizlaria: Escame Larrinaga
- Martiak 13, zapatua, 20:00
Errota Kultur Etxean
ANTZERKIA "De película" Oñaiten Clown.
Sarrera 3€

ANTOLATZAILEAK

- Arboto aspiko damak emakume elkarteak
- Denon Arteak elarguneren elkarteak
- Emakume etorkileen taldea
- De Norte a Sur
- Abadiñoko Udala

• Bikoterik gabeko emakumeak •

Errezeloz begiratuak oraindik ere

Geroz eta emakume ezkongabe gehiago bizi da bakarrik, eta ikerketen arabera, horrela bizi diren 30 urte inguruko emakumeei asko gustatzen zaie euren bizimodua. Hala ere, eta garai bateko ikuspegia aldatu den arren, oraindik estigmatizatu egiten ditu gizartearen begiradak.

IZASKUN JAUREGI

Argazkia: Dani Blanco

BAKARRIK bizi izan diren emakumeek besteen isekak eta ezinikusiak jasan behar izan dituzte orain dela ez hainbeste denbora arte. Gizon ezkongabeen ohiturak berriz, interesgarritzat jo izan dira eta barrea eragin izan dute zenbaitetan. Emakume ezkongabeei ordea zahar ozpindu usaina zerien.

XIX. mendean, hirien hazkundearekin eta industrializazioarekin hasi ziren gauzak aldatzen. Esku-lana beharrezko zenez, emakume ezkongabeen esku-lana ere aintzat hartu zen gizarte burgesaren garapen ekonomikorako. Hala, hiri handiak bakarrik bizi ziren emakumeen bilgune bihurtu ziren. Ordura arte, emakume ezkongabeak familiaren baitan ezkutatuak bizi ziren. Garapen industrialak emakume ezkongabeak gizarte osoaren bistan jarri zituen hirietan. Neska gazteek ordea ez zuten ezkongabe geratu nahi, neskazaharrek iseka eta errukiaren xede izaten jarraitzen zutelako. Gainera, garai hartan esaten zenez, emakume bat ezkongabe geratu edota goiz alarguntzen bazen, erotasun histerikoa, malenkonía edota orokorrean emakumezkoen berezko gaitzat jotzen zirenak harrapatzeko arriskua handitu egiten zen.

Egoerak pixkanaka hobera egin zuen emakumea lan mundura eta hezkuntzara sartzen hasi zen heinean. Ordura arte emakumeen bizitzaren ibilbide logikoa zena aldatzen ari zen: harreman ezberdinak izaten zituzten, bata bestearen atzetik, edo behin baino gehiagotan ezkontzen ziren alargundu ondoren... Fenomeno honi buruz asko eztabaidatzen zen garai hartan. Parlamentari ingelesek lanik ez zuten neskazaharrak itsasoratu eta antipodeta-

"Lesbiana, prostituta, sasijakituna... Neskazaharren pertsonaia literarioaren sorrera, eta estereotipo horren erabilera banala, XIX. mendeari zor diogu"

SOLAS LIBURUA

ra bidali behar zirela proposatu zuten. AEBetan XIX. mendean emakume ezkongabeen kopurua hazi egin zenez, "soberan" zeuden emakume hauek.

Oregon eta Kaliforniara itsasoratzeko proposamenak egin ziren, non biztanleriaren portzentaje altu bat gizonetara zen.

Espainian, 1860ko zentsuak dio 15.600.000 biztanletik gora zeudela, horietatik 7.900.000 inguru emakumeak ziren: biztanleriaren %49,55 gizonak eta %50,5 emakumeak.

Azken horien artean, ezkongabeen taldea oso handia zen: 4.343.158 zeuden ezkondu gabe eta 2.862.015 ezkondu. 702.800 berriz, alargun zeuden. Beraz, bakarrik bizi ziren edo gizonik gabe geratu ziren emakumeen kopurua 5 milioitik gorakoa zen. Berdina gertatzen zen 1797ko zentsuan. Carmen Alborch politikari eta idazle espainiarraren *Solas* liburuan jasotzen diren datuen arabera, 31-40 urte bitarteko emakume ezkongabeen taldea 1.174.156ra iristen zen. Pentsatzekoa da kopuru hauek arazo latz bihurtzen zirela emakumeak egin zezakeen bakarra ama eta emazte lana zen gizarte batean.

Garuna eta umetokia ez omen dira bateragarriak

Bada beste datu berezi bat ere: garai hartako emakume ezkongabeen kopurua askoz handiagoa da maila sozial altuetan. Kulturarako sarbideak eta gaitasun intelektualak ezkontzatik aldentzen zituen emakume asko. Carmen Alborchek bere liburuan dioenez, "badirudi umetokia eta garuna ez direla organo bateragarriak".

Garai hartan, emakume ezkongabe askok ardura postuak lortu zituzten lan erlijiosoetan, misioetan, aldizkari erlijiosoetan... Antzerkia, opera eta baletak ere askatasun guztia-ekin bizitzeko aukera eskaini zion hainbati.

Literaturan ordea, “emakumea” eta “bakarrik egotea” elkarrekin agertzen baziren, beldurra eta errezeloa sortzen zituen. Gizarte ingelesak adibidez, emakume ezkongabeen kopuruaren hazkundera gizarte gaixo baten adierazpena zela ohartarazi zuen. Juxtu gaur egun esaten denaren kontrakoa.

“Emakume ezkongabea emakume idealaren kontrako modelo da”, dio Carmen Alborchek bere liburuan. Neskazaharren edozein deskribapen egiten denean ideal femeninoaren desbideratzearen mamua egoten da atzean. “Lesbiana, prostituta, sasijakituna... Horrelako esanahi eta erabilpen negatiboak Mendebaleko kulturaren dabilta, benetako oinarriarik ez duten arren; baina neskazahararren pertsonaia literarioaren sorrera, eta estereotipo horren erabilera banala, XIX. mendeari zor dizkiogu”.

Hala izanik ere, ez al dute oraindik bakarrik bizi diren pertsonak eta batez ere emakumeek gizartearen mehatxu begirada jasan behar izaten? Garai bateko emakume ezkongabeak ezin zuela gizon bat lortu esaten zen; oraingo emakume ezkongabeak ez du gizonik nahi bere ondoan; lehenagoko neskazaharrek arrarotzat hartzen ziren, gaur egungoak egoista eta hedonistatzat. “Gaur egun bakarrik bizi diren emakume hauei errudun sentiarazten zaie edota erruki izaten zaie gizarteak berez eman dien funtzioa ez dutelako betetzen”, dio Alborchek. Izan ere, emakume ezkongabeen kasuan beti dago presente haurrak izateko funtzioa. Bitxia da, baina oraindik ere gizon ezkongabeen mitoak aurrera darrai, eta oraindik ere beraiek dira gehien ezkondu eta birrezkontzen direnak.

Bakarrik bizi diren gizonen kasua beraz, emakumeena baino onartuago dago oraindik. Ezberdintasun hau leku publikoetan nabarmentzen da batez ere. Almudena Grandes idazle espainiarrak *Atlas de geografía humana* izeneko azken liburuan honela zioen: “Luxuzko hoteletako tabernak nire faborito-



Bakarrik bizi diren gizonen kasua onartuago dago oraindik. Bakarrik dagoen emakumea susmo eta espekulazioen objektu da ordea.

ak dira. Hotel oso garesti bateko tabernako mahai diskretuan lasaitasunez kopa bat hartzen bakarrik dagoen emakume batetaz inork ez du inongo susmorik izango (...) Hotel merke bateko tabernan, bakarrik dagoen emakume batek, ez dakit zergatik, erruki ziztada anbiguo bat sorrarazten du begiratzen dutenengan, emakume horren bakardadea inoiz aukeratua, akzidentala edota aldi baterakoa izango ez balitz bezala”. Bakarrik doan emakumeak beti bi sentimendu sortzen ditu oraindik, Carmen Alborchen esanetan: errukia, ez duelako lortu gizon bat bere ondoan izatea; edota gizon horren bila dabilelako ziurtasuna, eta beraz harrapakin erraza bihurtzen da. Bakarrik dagoen emakumea susmo eta espekulazioen objektu da beti. Baina hala ere, AEBetan 1985-1986 urteetan eginiko hainbat iritzi ikerketen arabera, ezkongabeko emakumeen %60ak ezkondata zeuden emakumeak baino zoriontsuago zirela zioten, eta 20 eta 30 urte bitartekoek ezkongabe gertatzearen aldeko jarrera gero eta nabarmenagoa azaltzen zuten. ■

Obra biziak

Kosta egiten zait belaunaldi berriez hitz egitea. Bate-tik, ez dudalako neure burua horretarako behar bezain adinekoa ikusten.


Eta bestetik, ez dudalako onartu nahi balizko hizkuntza berri horren erantzukizuna besteena, gazteagoena, behar duenik. Ez zait bidezkoa iruditzen zama datozenengan jartzea, errazegia da, sofán eroso eserita dagoenaren begirada litzateke hori. Denona beharko luke ardura.

Geurea. Gu honen barruan zer sartzen den norberak erabaki dezala.

Neuk behintzat subjektibitate berriez osatutako gu batean sinesten dut, ahoa betetzen duten hitz handietan sinesteko behar den ez dakit zer hori aspalditxo galdu bainuen. Horregatik jartzen dut indarra, kemena eta sineskera subjektibitate berriek, bitxiek, singularrek egin dezaketen horretan. Argitze modura: subjektibitateek ez dute norbanakoak eraikitako gizarte berekoia helburu, aitzitik, identitate finko eta mugiezinari muzin egiten dioten subjektibitateak dira. Transgenerazionalak. Afektuen politika bat bilatu, gorputzekin elkarri lotuta dagoena.

Esperientzia hitza aipatu zuen Anak orain bi aste. Gure gizartearen arazoetako bat —beste bat— esperientziak gure bizitzetatik kanpo gertatzen direla da, eta gu haiei begira egoten garela. Aspaldi iragarri zuen Benjaminek esperientziaren pobrezia, gerrarteko urteetan hain zuzen ere. Bestalde, ezaguna da Benjaminek Paul Kleeren *Angelus Novus* koadroari buruz idatzi zuena.

Aingerua atzera begira dago, hondamendia era-kusten du hegál batekin. Bestearekin berriz, etorki-zunera begira dago dagoeneko. Oteizaren arraunla-riek ere atzera begiratzen dute aurrera egiteko. Gehiegi luzatu gabe, inter-pretazio posible bat: iraga-na, oraina eta etorkizuna-ren bat egitea lortzen duen



denbora bat, non iraganaren erreskate moduko bat lor dai-tekeen.

Denbora istanteko kafe kikara baten modura kontsu-mitzen eta geure esperientzia propioak eraikitzeari uko egi-ten jarraitzekotan, “arnasaren liraintasun guztia galduta, tris-teak eta gaizki irudikatutako panpina tonto horien antze-koak izango gara bihar haien-tzat, dena heriotzara murriztu duen argizari museo batean”. José Luisen joan den aste-ko hitzak dira.

Badago argizari museo batean hilda ego-teari uko egin eta obra biziak sortzeari ekin zion artista bizigarri bat. Horretarako zekiena desikastea erabaki zuen nolabait, hau da, zekiena aldarrikatu edo modu age-rian erakusteko inongo beharrik gabe. Zekien guztia, bidean ikasitakoa, bere obra bizietan disolbatu zuen, besteen gorputzen-gan pertzepzioak, sentsazioak eta afektu berriak bilatuz. Ligya Clark (1920-1988) brasildarrak 60ko hamarkadan berebiziko erabakia hartu zuen: bere lan artistikoek ekintzaren bitartez bakarrik izango zuten zentzua. Performatiboak izango ziren edo ez ziren izango. Museotan eta galerietan erakusten jarraitu eta egun haren lana nazioarteko museo handitan dagoen arren, artxibo bizi modukoak bilakatu dira bere garaian zuten indar estetiko edota klinikoa guztiz galdu gabe.

Hona esperientziari sartzen uzten dioten eta subjektibitatearen ertzak beste norabide batean zabaltzen dituzten errepresentazio eta sormen lan batzuk: Idoia Zabaleta eta Anto-nio Tagliariniren *Royal Dance*, eta Rabih Mroué libanoarraren *Three Posters* performanceak; Pier Paolo Pasoliniren *La Rabbia* filma; Annie Ernauxen *Lekua* eta Chantal Mallarden *Hilos* liburuak; Gora Japon, Anari eta Mursegoren azken diskoak eta zuzene-koak. Gehiago badira, jaki-na. Gutxiago ere bai. ■



Subjektibitateek ez dute norbanakoak
eraikitako gizarte berekoia helburu, aitzitik,
identitate finko eta mugiezinari muzin
egiten dioten subjektibitateak dira





Felix Zubia Olaskoaga

MEDIKUA. ZAINKETA INTENTSIBOETAN ESPEZIALISTA

Gaixotasun psikiatrikoen tratamenduaz

Gaixotasun psikiatrikoak gizakia bezain zaharrak dira, eta zenbait lanek diote-nez, gure arteko %10ak jasaten ditu. Mende askotan zehar ospe txarra izan dute, eta ia kultura guztietan, baztertzeko eta ezkutatzeko joera izan da. Euskaraz, esaterako, eroak edo zoroak izan dira, eta duela urte gutxi arte psikiatrikoetan itxi eta baztertu izan ditugu.

Lehenik eta behin, saia gaitezen gaixotasun psikiatrikoak ulertzen eta saiitzen. Zaku zabal batean gaixotasun psikosomatikoak izango ditugu. Gaixotasun hauetan, eta bizitzan dauzkagun arazoen aurrean, gorputzeko sintomak edo sintoma somatikoak izango ditugu. Esaterako, estres egoera bat dela eta, sabeleko mina, bizkarreko mina edo lo egiteko arazoak izango ditugu. Ulertzeko denez, hasierako arrazoiak konpondu artean, ez dira sintomak desagertuko. Geroz eta gehiago ikusten ditugun gaixotasunak dira, lehen mailako arretan kontsulten %25 osatzeraino.

Gaixotasun psikiatriko nagusiak bi taldetan banatzen dira: neurosia eta psikosia. Neurosian gure errealitatearen pertzepzioa mantentzen dugu, baina behar ez bezalako edo gehiegizko erantzuna ematen dugu. Neurosiaren barruan dauzkagu gehiegizko antsietatea, fobiak, hipokondria...



DANI BLANCO

Psikosian baina, errealitatearen pertzepzioa aldatua dago, bestelako sintomak azalduz. Talde honetan dugu eskizofrenia, gaixoak haluzinazioak dituelarik, jazarpeneko psikosia adibidez. Anorexia ere bai, gorputzaren pertzepzioa aldatzen duena. Eta depresioa ere gisa honetakoa da, gaixoari errealitatea ulertzeko gaitasuna galarazten diona. Psikosiek izen txarra duten arren, haien arrisku nagusia gaixoei beren buruaz beste egitea da, eta ez dute ingurukoentzat arrisku handirik eragiten, kasu oso bakane-tan izan ezik.

Gaixotasun psikiatrikoen tratamendurako bide ezberdinak ditugu. Geroz eta gehiago dakigunez, gaitz askoren oinarrian arrazoi biokimikoak daude, zenbait substantziaren gabezia adibidez (depresioan dopamina), eta farmakoen bidez substantzia hauen gabezia konpontzen saia gintezke. Botikez gain, psikoterapia ere eraginkorra da, modu ezberdinetako sesioak landuz, gaixotasun bakoitzari dagokiona. Eta hirugarrenez, terapia okupazionala daukagu. Gaixo psikiatrikoak gizartean egoki baliatzeko ezintasuna du, eta galdutako ahalbideak berreskuratzeke beharra izaten du. Gure esku dago beraz gaixo hauei beren tokia onartu eta ematea, ezkutatu gabe, beharrezko arreta izan dezaten. ■

« Gaixo psikiatrikoak gizartean egoki baliatzeko ezintasuna du. (...) Gure esku dago gaixo hauei beren tokia ematea, ezkutatu gabe, beharrezko arreta izan dezaten »

TXANDAN

Igor Estankona



San Jose lore beilegi-beilegien gainean ihintza oraindik, berria eman zidatenean: “Amama Juanita bajoaku, zatoz ahal dozunean etxera”. Udaberri aurreratu batek hartu zituen, ia-ia asfaltotuz jan arte, Bilbotik Artearako errepideak. Lasai egin nuen amamaren —eta hilda dagoen aititeren— baserrirako bidea. Ugazandre gabeko lekuak dira orain haiek denak. Ibili nituen gaztainondoa-ren zainak, erreka-muna, labe inguruak, zeruaren urdina.

Udaberria

Azkenengoz berarekin egon nintze-nean begiekin hitz egin zidan, berba egitea ere kostatu egiten zitzaion eta. Kontu zaharrak eta berriak kontatu nizkion, denborak zentzurik ez duen ohe ondoan eserita. Poliki-poliki agur esatearen alde ona bizi izan dugu guztiok, eta bake hori daroagu: amamaren esku beroen oroitzapena, ume-azal haren zurtasuna, bizitza zer den ulertu dutenen oroimen falta.

Notiziarik ederrena eman nion orain dela hilabete batzuk, eta ahaztu egiten zuen arren, errepikatu egiten nion. Birramama izango da maiatzean, amamarik eta aititerik gabeko aita bihurtuko naizenean. ■

Ixabel Etxelservia

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Gure aukera

Udaberria lanpetua heldu zaigu. EH Bai-
ren kanpaina abian dugu, ezkerreko
alderdi politiko abertzaleak ados jarri
baitira Akitaniako hauteskundeetan,
hautetsirik lortzeko aukera baztertu
badute ere. Zertarako aurkeztu, gisa guztiz
hautetsirik ez bada lortzen? Horra betiko gal-
dera. Funtsik gabekoa, argi baita Frantziako
Gobernuak prestatu dituen Estatuko erreform-
etan ez diela herritarrei politikan eragiteko
aukerarik eman nahi. Xede horretan, institu-
zioak herritarrengandik urruntzen ditu eta
euskaldunon kasuan, instituzioetan
itoak, ezabatuak izateko arrisku
larrian gaude. Ondorioz, hitza ema-
teko aukera guztiak hartu behar
ditugu, gure burua erakutsi eta
demokraziaren zapaltze urrats guz-
tiak salatu.

Azken urteetako lanari Estatuak
inongo begirunerik izan ez dionik,
bi kontsulta antolatuko dira hautes-
kunde ofizialen ondoan. AHTri
buruzkoa eta Batera plataformak
euskal instituzioari buruzko iritzia-
ren galdeketa. Horrek militanteen
sekulako elkarlana eskatzen du, zainketa
zorrotza beharko baita emaitzak serioak
izan daitezen. Abertzale guztien elkarlana eta
laguntza beharko dituzte bi kontsulta horiek.
Erran nahi baita, AB, Batasuna, EA eta
EAJko militanteak horretan ariko direla. Hau
baikorra da, orain arte EAJ erraxago ikusi



GAIZKA IROZ



Politika orainaren kudeaketa
omen da. Oraina okupatua dugu
eta borondate guztien laguntza
eskatzen du une honek



baitugu loturak egiten eskuineko frantses
alderdiekin ezker abertzalearekin baino.
Alderdietatik kanpo dauden abertzaleentzat
ere berri ona da, askok elkarlan hori aldarri-
katzen baitute.

Politika orainaren kudeaketa omen da.
Segur da oraina okupatua dugula eta boron-
date guztien laguntza eskatzen duela une
honek. Horrek balio du erakusteko proposa-
menak egiten dituztenak abertzaleak direla
eta gure proiektuak aitzina eramateko elkartu
behar dugula. Balladur-en erreformak mapa-
tik ezabatu nahi gaitu, Frantziako
Estatuaren proiektuetan tokirik ez
baita euskaldunentzat. Adibidez,
departamenduan aurkezten den
Alain Lamassoure Sohütako ikastola-
lara joan da harro-harro prentsare-
kin, euskararekiko duen interesa
erakusteko. UMPekin aurkezten da
Lamassoure Euskal Herrian. Fran-
tsesa Estatuko hizkuntza bakar
bezala bozkarazi zuena Toubon
legearen bitartez. Europar euskal
gatazkaren bukaerako mozioaren
aurka ere bozkatu zuena! Desager-
tzea, Frantziako Estatuak ez digu beste gero-
rik proposatzen. Berdin zaio Lamassoureri.
Jendeak ahanzten baitu eta politikari mota
horrek ez du lotsarik.

Euskaldunen artean, Euskal Herriaz pen-
tsatzen hasi behar dugu politikan. Indepen-
dentziarako bidea da gure aukera. ■

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Ez da berria. Gazte-
tan Torneo Don
Bosco, San Ignacio,
Victor Pradera jokatzeko genituen. Espainia-
ko Futbol Federazioak jokalaria onentzat
Pichichi eta Zamora ditu. Garai batean Copa del Gene-
ralísimo zuen. Orain Copa del Rey. Jokalarientzat ofi-
zioaren parte da, Copa de Champagne jarriko balute
bezala. Baina zaleek, ordaintzaile jatorrek lehiaketa ez
dute ofizio. Eta futboleko bezala saskibaloian ere erre-
gearen presentzia ereserki eta guzti desgustukoa due-
nez, txistuz adierazten du. Nola bestela? Eta orain ere
kasualitatez, katalanak eta euskaldunak izan dira erre-

Urrunetik dator

gea eta Espainia ez dituela gogo-
ko argiki utzi dutenak. EAEko
gobernuak badu hori iraultzeko
asmoa, behin baino gehiagotan haizatu duena. Eta bere
horretan jarraitzeko intentzioa adierazi du, hau denbo-
rale bateko fenomeno baiditzan. Eta hau gaintzea ez
da zaila, hain beharrezkoak omen dituzten ikurak era-
kustea ekiditea besterik ez dute. Aski lukete erregerik
eta ereserki gabeko Copa del Rey jokatzeko, negozio
horiek ez lukete espektakulua galduko eta normaltasu-
nez igaroko lirake. Baina kolonizatzaileak oroz gain
kolonizatua bere presentziak gaztigatu behar du. Ongi
hartua ez dela izango jakitun. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Jaitsi...

“PP eta PSE lan eskaintza publikoetan euskararen balioa jaistearen alde”

I

Egikaritza zailekoa da
lanpostuen esleipena
hizkuntza bada lehenesten den
aurrebaldintza zuzena.
Bi alderdik azaldu dutenez
horrekiko gaitzespena,
sorta honetan bete nahi nuke
gogoz eskatzen dutena,
ea langile finagoa den
gutxiago dakiena...



DANI BLANCO

IV bajatu...

Ez dira orren diferenteak
español eta euskara,
idiomak patroï igualetik
sortu ez ote dira ba?
Examenetan peditzen dena
benetan, a ze pasada!
Ez da hainbeste sabitu behar
perfila lortzeko jada,
entenditzeko boluntatea
eukitzea nahikoa da.

II jaitsi...

EGA pedigri-marka daukanak
badu nahikoa zimendu,
euskaraz ondo sortuko ditu
berba eta pentsamendu;
baina legea ez betetzeko
nola sortuta gauden gu,
Euskaltzaindiko azken araua
inor gutxi jakiten du
eta azkena kentzen hasita,
zertan ez gehiago kendu?

V baja...

Aun estudiando pegar y humo,
aun teniendo un profesor,
se me llena la boca de dientes
y termino blai en sudor...
Estaba claro que los expertos
tenían ya que dar amor;
era una tocada de cuerno
tanto verbo knor-nori-nor,
bastaba bajar un poco el nivel
para entendernos mejor.


III jeitsi...

Ez dago inor euskaraz anka
iñoiz sartu ez duenik;
gainera, ez al da lizentzirik
izateko eskumenik?
“Entenditu”ren gizako hitsak
erabiltzen dira lendik...
Ni ez dut uste Txirritak iñoiz
eser ulertu zuenik
eta iñork ez du esango ark
perfil honik ez zuenik!

VI irakaspena

Maila jaitsi nahi izateari
negargarria deritzat,
Coca Colaren formularekin
zer antz du euskal aditzak?
Langile batek gure hizkuntza
ezin badu hartu aintzat,
edo ez du nahi, edo ez da gai,
horra dauden bi baldintzak
nik neuk nahiko ez nituzkeenak
funtzionario batentzat.

DOINUA: Bogart eta Bilintx.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Zinema

Pertsonaia txikien antzezpen handiak

“Talentua duten 100 aktoretik, batek zortea izango du, eta hori da aurrera aterako dena”. Antzerti aktore eskolako irakasleak esan ziena gertutik ezagutu du 80ko hamarkadako harrobiak, baita ondoren etorritako antzezle ugarik ere. Paper protagonistak lortzea ez da erraza zineman, baina talentua duela argi uzten du askok plano bakoitzean.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: *Secundarios...*

“ZAILAGOA DA bigarren mailako pertsonaia borobiltzea, protagonistarena egitea baino. Ez dakizu pelikula zertaz doan, sekuentzia horren berri baino ez dizute eman. Hara zoaz eta ez dakizu nondik zatozen, nora zoazen, ezer ez”, dio Jose Ramon Soroizek *–Super Arizko* EAEk izan duen lehendakari dibertigarrienak. Une zehatz horretan bete-betean asmatu behar du bigarren mailako pertsonaia, eta gainera protagonistaren lagungarri behar du. “Noski zailagoa dela. Protagonistak hogeia egun daramatza errodatzen, baina zuk akats bat egiten duzu eta diote ‘gutxi eman diote eta gainera ez daki egiten’. Irakasleak azterketa zazpi aldiz egiten badizu azke-

nean gainditu egingo duzu, baina ez dakizu lezioa dakizunean, lehenengo azterketan irakaslea aho zabalik uzten duzu”, berretsi du Saturnino Garciak *–Justino* hiru-garren adineko hiltzaileak. Are gehiago, bigarren mailako pertsonaia on gutxi idazten dituztela uste du Klara Badiolak *–Behiak* filmeko baserritar sufrutuak, sekundarioak berezko izaera behar duelako, haragia eta odola, “eta horrelako gutxi daude”.

Hiru horiez gain beste 18 aktore elkarrizketatu ditu Carlos Roldán Larretak, Euskadiko Filmmategiak sustaturiko *Secundarios vascos de primera* proiektuan. “Antzezpen munduan ahantziak izan ohi diren bigarren mailako

Goitik behera eta ezker-eskuin: Pilar Rodriguez (*Yoyes*); Mikel Garmendia (*Kareletik*); Paco Sagarzazu (*Aupa Etxebeste!*); Elena Irureta eta Marivi Bilbao (*Pecata minuta*); Carlos Zabala (*Ehun metro*); Ramon Agirre eta Ramon Barea (*Ander eta Yul*); Kontxu Odriozola (*Goenkale*); Aitor Merino (*Zorion perfektua*).




pertsonaietan” jarri du begirada autoreak, euren esperientziak hiru liburutik bilduz. Pantaila handian minutu gehien betetzen dituztenak ez izan arren, benetako protagonistak eurak baitira maiz, istorioko pertsonaia nagusiari itzal egiteraino. Laugarren liburu baterako aukera bada-goela ere gaineratu digu Roldánek, oraindik aktore on asko dagoelako elkarriketagai.

Baina hitz egin dezagun jada elkarriketatu dituenek, aktore horien eskarmentuak gogoeta frankorako eman baitu. Esaterako, euskarak gure zinemagintzaren historian izan duen bilakaeraz. Hastapenetan, “euskara batuan errodatu nahi zen, oraindik inork asimilatu ez genuenean, oso akademikoa iruditzen zitzaigun. Hasieran, bai Euskal Telebistan, bai zineman dena euskara batuan idazten zen eta idatzita zegoen bezala esan behar zen. Oso hotza egiten zitzaidan, jendeak ez duelako horrela hitz egiten. Plastikozko euskara zen”, gogoratu du Elena Iruretak *—Bi eta bat* telesailako ninfomano friboloak—. Kontxu Odriozolak *—Goenkaleko* Maria Luisa ordezkazekin— euskal telebistako lehenengo urteei egotzi die errua: “Akademiko batzuk jarri zituzten hor, erdiak ulertzen ez zuen laborategiko euskara egiten zutenak. *Goenkale* adibidez, ez didate nire euskara erabiltzen utzi. Euskara batuan egin behar izan dut. Hala ere, noizbehinka nire herrian esaten den bezala hitz egitea erabaki dut; gidoilariak idatzi didate ‘Jainko potoloa’, baina Azpeitian esaten da ‘Jainko potolinoa’... Eta hori oso gustuko zuen jendeak! Bestela badirudi ez naizela Azpeitikoia”.

Egun, zeluloidean hizkuntzaren afera gainditzeko ari dela uste dute aktoreek. Iñake Irastorza *—Kutsidazu bidea, Ixabel* filmeko amona suahiliaren— arabera, lasaitu egin

“Hasieran zineman dena euskara batuan idazten zen eta zegoen bezala esan behar zen. Oso hotza egiten zitzaidan, jendeak ez duelako horrela hitz egiten. Plastikozko euskara zen”

ELENA IRURETA



Goitik behera: Iñake Irastorza (*Kutsidazu bidea, Ixabel*); Kandido Uranga (*Eutsi!*); Ane Gabarain (*La Comunidad*); Txema Blasco (*Behiak*); Jose Ramon Soroiz (*Maité*).

behar gara denok euskararekin, eta istorioaren errealitate soziolinguistikora egokitzen saiatu; “lortzen ari dela uste dut”, dio. Zantzu baikorrak ikusten ditu Odriozolak ere: “*Martin* bezalako telesailak, Elena Irureta eta Jose Ramon Soroizekin, ikuslearentzat eskuragarriak dira, ulertu egiten delako eta euskalkiak arintasunez erabiltzen dituztelako”.

Betiko roletan

Paper mota jakinetan betikotzeaz ere ugari mintzatu zaizkio aktoreak Roldán Larretari. Mikel Garmendia *—Bi eta bateko* ertzaina moxkortia— pertsonaia komikoetan ikustea ohituta geunden, baina paper dramatikoetan gehiago emango zukeela pentsatzen zuen; arantzatxo geratu zitzaion, gustura antzeztuko baitzukeen “neskatilen bortxatzaile sadikoarena, ahalik eta zitalena”. Badirudi pertsonaia gaiztoak aktoreen tentagarri direla, Marivi Bilbao ere *—telebistako* bizilagun kontakituekin— Daniel Calparsororen *A ciegasen* egindako lana baitu gogokoen: “Alaba puta lana egitera bidali eta ondoren lortutako dirua xahutzen dion ama baino gauza ankerragorik ez dago eta nik horixe egin nahi nuen, gorrotagarriarena, oso zaila delako. Pantailan nire burua ikusi eta pentsatu nuen, ‘hain naiz gaiztoa, erail egin beharko ninduketela’. Azken finean, aktore moduan esperimintatu egin nahi duzu. Mundutik botatzeko moduko izakia izatea oso erakargarria da, inoiz ez duzulako hain gauza indartsua antzeztu”.

Garmendiaren kontrakoa gertatzen zaiola kontatu du Txema Blascok *—muskerrak burmuina jan zion Obabako Tomasek—*: “Dramak eta tragediak antzezteko deitu ohi didate niri. Eta pailazo aritu naizela jakitean, harritu egiten dira”. Profil bereko pertsonaiak egiteaz aspertuta dago Kandido Uranga *—euskal zinemako* ahots seduktore eta sakonena—, dauden ama eta amona guztiak antzezteko egokitu zaiolako kexu da Pilar Rodriguez *—Lepokoa* laburreko ama, semearen zain— eta pertsonaia arraro bat dagoenean, zeinek egin dezakeen ez dakitena, berari deitzen diotela dio irribarretsu Ramon Bareak *—Airbageko* Big Club tenienteak—.

Aktoreen bizipenek bete dituzte, dena den, hiru liburuetako orri gehien. 80ko hamarkadako Antzerti aktore eskola aipatu du askok, funtsezkoa garaiko antzezleek falta zitzairen urratsa eman zezaten, bokazioa gehienei txikitatik bazetorkien ere. Batzuei, pelikula batek eman zien behar zuten akuilua. *Behiak* lanaren ostean, adibidez, Txema Blascok zera esan zion Julio Medem zuzendariari: “Aktore izateko balio dudala esaten badidazu, bihar enpresan dudana lanpostua utzi eta aktore izango naiz”. Eta film zerrenda luzea osatu du ordutik. Hainbat eta hainbat, telebistari esker bihurtu dira ezagun. Dagoneko euskaldun guztiek dakiguna azaldu du Jose Ramon Soroizek: Elena Irureta eta bera izatezko bikote direla pantailan eta testurik gabe ere moldatuko liratekeela edozein eszena errodatzen batera jarritz gero.

Anekdotak zientoka dituzte elkarrizketatuek: Aitor Merino –*Kronengo istorioak* filmeko eszena gogoangarrian botila kolpe baka-rean edatera behartzen duten gaztea– hautatu zuen ekoiztetxe atzeritar batek, ETako kide baten paper bitxia antzezteko: Benito Valdés jarri zioten izena, Frantziako legioan erroldatzera zihoan eta toreroa eta ultrakatolikoa zen! *A ciegas*eko filmaketa kaotikoaren ostean, Calparsorekin ez zutela berriz errodatuko erabaki zuten Elena Iruretak eta Paco Sagarzazuk –*Aupa Etxebeste!* laneko aitona xelebreak–. Jose Ramon Soroizek gogoan du beragatik errodaje osoa gelditu behar izan zuela Jose Antonio Zorrilla zuzendariak, gaztelaniaz azentu arraroa omen zuela-eta. Eta arriskuz beteriko profesioa dela ere nabarmendu du batek baino gehiagok: Ramon Barea kristalaren kontra kolpatu zuten eszena batean, hain modu errelistan, beira buruarekin puskatu zuela, efektu berezirik gabe; ber-

dinagatik, baina konkretaren aurka, buruan koskor itzelarekin amaitu zuen Kandido Urangak; eta entseguetan, botetan ezkutatu-tako benetako bizar-xaflekin ostikadak jasotzeagatik, hankak odoletan bukatu zuen Carlos Zabalak –*Ehun metroko* akusatu urduriak–.

Pertsonaia mamitsuenak, iristeke

Roldán Larretak elkarrizketatuez azpimarratu du hurbileko jendea topatu duela, atsegina eta umila. “Ez dute inolako divo-izaerarik, eta eskertzekoa da hori”. Bere esanetan, lanean ez dute protagonista papera bilatzen, mamia duten pertsonaiak baizik. “Truditu zait, aktore hauen ibilbidea aztertu ostean, talentua alferrik galtzen dela gure herrian. Kulturarekiko konpromiso handiagoa falta da, eta ez naiz soilik politikariek ari, ikusleek proiektu zinematografiko oso interesgarriak erraz mespretxatzen dituzte eta funtsik gabeko superproduktzioak ikustera joaten dira”, dio.

Aktoreek eurek, gehiago emateko gai direla erakusteko aukera emango dien pertsonaiarekin amesten dute. “Frustrazio pixka bat sentitzen dut. Urteak pasa eta diozu, ‘noiz egokituko zait?’, eta ez dut sekulako eskaintza espero... baina bai lan on bat egiteko aukera, aktore moduan hazten lagunduko didana, gozarazi, harro sentiarazi”, adierazi du Ane Gabarainek –*Jaun ta jabe*ko Garbi maitagarri bezain despistatuak–. Ramon Agirrerren –*Golazen* fenomenoko apaiz zorrotzaren– hitzetan, “ez da rolik mespretxatu behar, txikia izan arren. Baina nire paper handia oraindik iristeke dagoela pentsatzea ondo dago”. Azken finean, Kontxu Odrizolak azaldu moduan, “pantaila handian zure lehen plano bat ikustea baino magia handiagorik ez dago. Barren-barrenean, hori da gu guztion desira”. ■

**“Aktore hauen ibilbidea
aztertuta, iruditzen zait
talentua alferrik galtzen dela
gure herrian. Kulturarekiko
konpromiso handiagoa falta
da, eta ez naiz soilik
politikariek ari”**

**CARLOS ROLDÁN LARRETA,
SECUNDARIOS VASCOS DE PRIMERA**



**TALLERES
MITXELENA** S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikuflaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Arkitektura

Aldiri aldizkaria

Eraikineak
euskaraz hitz egiten dute

Aldiri. Arkitektura eta Abar euskara hutsean egindako lehen aldizkaria sortu dute Ibai Gandiaga eta Unai Fernandez de Betoño arkitektoek. Informazioaz harago eztabaida sortu nahi dute, arkitektura plazaratu.

UXUA LARRETXEA

Argazkia: Dani Blanco

“ARTEAZ aparte teknika da, eta gure gizartea eraldatzen du”, horrelaxe definitzen du arkitektura Ibai Gandiagak. Gandiaga, Unai Fernandez de Betoñorekin batera, *Aldiri. Arkitektura eta Abar* aldizkariko zuzendaria da, estreinakoz euskara hutsean arkitekturari buruz diharduen agerkaria.

“Arkitekturaz gure hizkuntzan aritu nahi genuelako sortu genuen *Aldiri*. Guk irakurri nahiko genukeen aldizkaria idatziz orain arte zegoen hutsunea bete dugu”, Fernandez de Betoñok dioenez. Izan ere, egundaino izan da alor hori lantzen zuen euskarazko materialik, baina denak itzulpenak izan dira. Eta horrek ez zituen asetzen bi arkitekto hauek. Beraz, euskaraz arkitekturaren ezagutza produzitzeko interesa zeukaten beste lau lagunekin indarrak batu zituzten. Ekimena gauzatzeko Udako Euskal Unibertsitatearen laguntza izan dute.

Aldizkariaren itxura erabakitzeke orduan, monografikoaren aldeko apustua egin dute, besteak beste, eztabaida bultzatzeko lagungarri delakoan. Hiru hilabete behin argitaratuko duten ale bakoitzean arkitekturaren adar bati begira jarriko dira; abenduan aurkeztu zuten 0 zenbakian,

Olatu koloretsu bat azalean ailegatu zen *Aldiri* aldizkariaren 0 zenbakia 2009ko abenduan. Hiru hilabete behin argitaratuko da.



esaterako, arkitekto hasiberriak eta bizi dituzten komeriak izan zituzten hizpide, eta, lehenengo alean, berriz, Babes Ofizialeko Etxebizitzak. Ekologia, energia berriztagarriak, diseinua, artea, soziologia, geografia... Horien denen euskarri izateko gogoz jaio da *Aldiri*. Edonola ere, Euskal Herriko arkitektura da proiektuaren ardatza, eta hortaz, ale bakoitzean euskal arkitekto bati egindako elkarrizketa eta gure lurretan gauzatutako proiektu baten analisia txertatuko dituzte. Zenbait kasutan, gainera, autore bati monografia osoa eskaintzea aurreikusi dute, Luis Peña Gantxegiri edo Miguel Garairi, kasu. Halaber, unean uneko gaia ikuspegi ezberdinetatik eta begirada anitzez landuko dutela argi utzi dute. Jorratuko dituzten edukien arabera alor horretan aditua den arkitekto espezializatua-
rengana joko dute azterketa edo analisia hark egin dezan. Zentzu horretan, ez daude kexatzeko moduan jende asko hurreratu baitzaie dagoeneko laguntza eskaintzera. Harrera on hori arkitektura ikasketak euskaraz egin dituen belaunaldia jada kalean izateak bermatu die, hein handi batean.

has berriak
arkitekto gurekin
gure fik



**Euskal Herriko arkitektura da
Aldiriren ardatza, eta hortaz,
ale bakoitzean euskal arkitekto
bati egindako elkarriketa eta
gure lurretan gauzatutako
proiektu baten analisia
txertatuko dituzte**

Bloga, kritika sustatzaile

Aldiri eskuratu nahi duenak gaur gaurkoz Elkar dendetan izango du horretarako abagunea, nahiz eta lauzpabost saltoki espezializatutako ere salgai jartzeko modua lantzen ari diren. Harpidetza sistema eta bloga izango dira beste aukeretako batzuk. Sareko eta papereko edukiak ez dira erabat berdinak Fernandez de Betoñok azpimarratu duenez: “Blogeko edukiak kutsu kritikoagoa dute, xedea baita *feedback* edo hartu-eman sortzea gure eta gaian interesa duen edonoren artean”. Denborarekin papereko edukiak sarera pasa nahi lituzkete, baina beti ere papereko euskarria lehenetsiz. Hori bai, argi dutena da arkitekturarekiko sentsibiltatea duen ororengana iritsi nahi dutela, ez arkitekto edo arkitektura ikasleengana soilik. Helburu hori oraingoz gauzatzen ari dira, harpidedunen artean, besteak beste, historialariak, abokatuak, kazetariak eta paisajistak baitaude. Aniztasun horrek argi erakusten du interesa egon badagoela; “egunkarietan begiratu besterik ez dago jabetzeko garrantzia ematen zaiola, nahiz eta beharbada zuzenean ez jorratu”.

Berritasuna erantsi nahi izan dute arkitektura aldizkariaren merkatura, eta horretarako planoei garrantzia eman eta testuak memoriatar soilik mugatu ordez, zerbait berria eranstea hautatu dute: kritika. “Informazioa iragazi ondoren analizatu nahi dugu, eta horren bidez eztabaida sortu”.



Ibai Gandiaga (ezkerrean) eta Unai Fernandez de Betoño. Bi arkitektook bultzatu dute *Aldiri* aldizkaria argitaratzea.

Euskara eta arkitektura, arkitektura eta euskara; zein harreman dute bi horiek? “Espainiako edo Frantziako kode teknikoak arkitekto batek bete beharreko lege garrantzitsuenak dira eta ez daude euskaratuak”. Gainera proiektuak, oro har, ez dira euskaraz egiten –gehienez jota elebidunak izaten dira– eta kontuan izan behar da arkitektura baten sortze prozesuan jende askok hartzen duela parte –arkitektoak, bezeroak, eraiki-

Ondarre
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispavista.com • www.nekatur.net/ondarre





tzaileak, aparejadoreak, tokian tokiko udaleko teknikoak, eta abar—, eta horiek denak euskaldunak izatea oso zaila dela. Gandiagak honakoa ere gaineratu du: “Atzerritar asko dabiltza eraikuntzako sektorean lanean eta sarri gaztelaniaz komunikatzeko ere arazoak izaten dituzte, pentsa!”. Nolanahi ere, dena ez da ezkorra euskararentzat, zurgintzako eta hargintzako hiztegia aberatsa baita oso. Eguneroko jardunean, ordea, hiztegiak ezer gutxirako balio duela aipatu dute, obra batean ez duelako praktikotasunik eta hiztegia hizkuntza denetan galtzen ari delako. Aitzitik, EHUKo irakasle hauen xedea eza gutza euskaraz sortzea da, horrek denboran irauten duelako; eta, gaztelaniak, frantsesak edo ingelesak gorputz teorikoa duten moduan, euskaraz zentzu horretan gabezia handia duelako.


Arkitektura globalizatua

Beraz, argi dagoena da euskarazko erreferentzia materialik apenas dagoela. Eta Euskal Herriko arkitekturari begira jarriko bagina, zer esan genezake horri buruz? “Ez dut uste Euskal Herriko arkitektura bereizten duen ezaugarririk dagoenik. Hori bai, haurtuta handia nabaritzen da Iparraldearen eta Hegoaldearen artean, bereziki hirigintza mailan; Iparraldean paisaia sakabanatuta dauden etxetxoak nagusitzen dira eta Hego-

aldean, ordea, trinkotasunera jotzen da gehiago”, Fernandez de Betoñok azaldu duenez. Zentzu horretan bai, baina egunkarrietan edo aldizkarietan agertzen diren erai-kin panpoxoetan erreparatuz gero, ez dago alde handirik hemengo eta beste herrialdeetako arkitekturaren artean, beste arte guztiekin gertatu moduan arkitektura ere globalizatzen ari baita.

Arkitektura-euskara binomioan dena ez da ezkortasunerako motibo: adibidez, zurgintzako eta hargintzako hiztegia aberatsa da oso

Euskal Herriko arkitekturan Ibai Gandiagak frontoiak nabarmendu ditu: “Bi paretek toki bat nola sorrarazten duten erakusten du frontoiak, espazio hori leku izatetik toki izatera nola igarotzen den”. Kirol gunea, bazkariak egiteko lekua, aterpea, merkatua, kontzertuetarako edo ekitaldiatarako eszenatokia... Orotariko funtzioak betetzen ditu frontoiak gure artean, xumea bezain bereizgarria da. Hori bai, bat hautatzekotan Azkoitiko aukeratu luke. Unai Fernandez de Betoñok, ordea, oso bestelako arkitektura azpimarratu du: “Ni hirigintzako irakaslea naizenez, hemengo alde zaharrekin geratzen naiz. Erdi Aroan eginak dira, eta askok helburu politikoak edo militarrek zituzten. Horrenbestez, zaindu beharreko harribitxiak dira”. Gasteizko Alde Zaharra du gustukoen, noski, bera hangoa baita. Arkitekturak —arte guztiek lez— estetikaz gain asko baitu sententzio eta sentimenduetatik. ■



NOBEDADEA



Atlantika

zibilizazioen kode ezkutua



29 euro

ARGIAren harpidedunek
%15eko deskontua

Argitu ezazu antzinako zibilizazioen
kode ezkutua eta bizi milaka abentura
jainkoen laguntzarekin.



+8



2-4



20-40 min.

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

LudiToys

Liburuak

KRITIKA


Arimen maisua.

Irene Némirovsky.

Alberdania. 255 orrialde. 18 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Némirovsky iparraldeko haizea: hotz mina

EMAKUME HONEN biografia edonor harrapatzeko modukoa da. Jakin nuenean Kieven jaioetako idazle honek udak Hendaian egiten zituela, eta zaintzaileekin euskara ikasi zuela, arras erakargarri bihurtu zitzaidan. Literaturako eremuetatik urrundu eta soziolinguistikara gehiago hurbilduz, beti pentsatu dut horrelako pertsona klaseak direla benetan gure hizkuntza eta gure kulturarentzat amu. Némirovskytarrak herriko jauregi edo etxalde eder batean hartzen omen zuten ostatu Biarritzera, Donibane Lohizunera edo Hendaiara etortzerakoan; artean nexka ostatu xume batera bidaltzen omen zuten zaintzaile batekin. Familia aberatsa izanik ere, judu erratuaren paradigma argia dugu Némirovskyren sendia. Iraultza Sobietarrak Frantziara erbesterazi zuen familia, eta Frantzian egin zen idazle Irene. 40 urte oraindik bete gabe zituela, berriz ere, erbesterako bidetara heldu behar izan zion, oraingoan bueltarik gabekoa: Auschwitz-era eraman baitzuten. Bakardadea, judu erratuaren bizitza eta heriotza dira idazle honen aurkezpen agiriak.

Eider Rodriguezek *Dantzaldia* euskaratu zuenean, nire artean pentsatu nuen bi idazle hauen artean “Hendaiako hondartzaz gain, zerbait gehixeago egon beharko din bada”. Eider Rodriguezen idaztanka iparraldeko haizearekin parekatu dut beti: gogorra, fina eta zorrotza. Hots mina. Otu zitzaidan Eiderrek Némirovsky itzultzeko arrazoi asko izango zituela, aurki neguan gurean jotzen duen haize horretatik zer edo zer izango zuela Némirovskyren lumak.

Dantzaldia irakurtzen udako ilunabar bat eman nuen, ez gehiago, hasi eta bukatu egin bainuen. Motza bezain sakona, eta zorrotza bezain irakokitzailea. Nobela hartatik pertsonaien psikologietan modu sakonean sartzeko gaitasuna izan zen gehien erakarri ninduen. Gaiak aukeratzeko eta tratatzeko trebezia eta ironia apartak otu zitzaizkidan: ama-alaba arteko harreman gatazkatsua, maitasun-gorrotza.

Arimen maisua irakurtzen arratsalde bat baino gehiago pasatu dut eta matakabras lagun izan dut. Eta oraingoan ere Némirovskyren idaztankerak erabat bere egin nau. Oraingoan ere pertsonaiak sortzeko, txirikordatzeko eta gaiekin trantzean jartzeko gaitasuna azpimarratu beharko nuke. Hain errealak eta krudelak egin zaizkit, gogoan beharra daukadala atzetik segika zebilzkion pertsonaiak eta gaiak direla. Iban Zalduari duela gutxi irakurri edo ulertu nion, euskal literaturaren inguruan zerbait berririk esatekotan eta txalotzekotan, itzulpenen ugalketa dela, eta hori gurean idazkera edota irakurketa kaxkarrak ekiditeko bidea izan daitekeela. Eta ez dakit egia izango den, baina Némirovskyren indarra baldin badute, bat baino gehiago harrapatuta geratuko da literaturaren sareetan. ■

Euskal gatazkari buruzko antzezlanak

Pako Aristik 2008an irabazi zuen BBK-k eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatzen duten Toribio Alzaga antzerki saria. Sari horri esker ikusi du argia *Josu Dukatiren proposamena* liburuak. Bi lagun dira obrako protagonistak: Josu Dukati ETako kidea da eta Antton Kaperotxi-

pi ertzaina. Biek iragan bera dute ordea, institutu berean ikasi zuten eta neska berarekin –Sara Zuzolagoitia– maitemindu ziren. Sara Josurekin ibili zen, baina Anttonekin ezkondu. 25 urteren ondoren, Ertzaintzak Josu atxilotu du. Eta galdeketa topo egin dute aspal-diko lagunak. Aspal-diko etsaiek. ■



Josu Dukatiren proposamena.
Pako Aristi.
Euskaltzaindia.
5 euro.

Antzinako europarren hiztegia

Gaiak argialetxeak dibulgazioari zuzendutako “Oinarritzko liburutegia” sailean argitaratu du *Antzinako Europaren hitz nagusiak* liburua. Josu Nabereanek osatu du lana, eta funtsean, gaikako hiztegitxoia da. Antzinako Europan bizi zirenen kultura azaltzen du, baita hainbat fenomeno bereizgarri ere: jainkosa neolitikoa, matriarkalismoa, megalitismoa, nekazari-tzaren sorrera... Horietan guztietan bidaia eginda, Zuberoako Maskaradei buruzko azalpenekin amaitzen da liburua. Ez da, noski, lan honetan azaltzen den euskal kulturaren adierazle bakarra: Ekaingo margoak edo lauburua, besteak

beste, testuinguruan kokatzeko balio du. ■



Antzinako Europaren hitz nagusiak.
Josu Naberean.
Gaiak.
143 orrialde.
19 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Arimak pizturik dirau.
Elbereth.
Ortots Burdin Hotsak.
Iraupena: 45'14".
10 euro.

Berezko odol heavyari urteek ematen dioten sendotasuna

LEGAZPIN bada heavy eta metalaren nola-baiteko harrobia, eta horien artean Elbereth nabarmentzen da. Donostialdeko Ortots metalaren plataformak lagunduta, bigarren lana dute, dotore aurkeztua. Gogortutako taldea aurkitu dugu: iraganeke heavy-metaletik harago joan dira, thrash klasikoaren indarra, abiadura eta riff astunak bereganatu dituzte. Hala ere, heavya betirako izan ohi da, eta horregatik, ez dira falta punteatze distiratsuak eta

melodia borobilak; bi joeren arteko oreka lortu dutela esan dezakegu lasai asko. Bestalde, kantek garapen handiak dituzte, eta tarteka sartutako organo, sitar eta bes-telakoek are gehiago mimatzen dute emaitza. Oro har soinu indartsu eta aldi berean gardenen da lortutakoa, eta hitzak —euskarazkoak guztiak— ere etxean ondo landuta ekarri dituzte.

www.myspace.com/elberethtaldea

Elbereth

«Heavy metalaren historia iluntasunarekin lotuta dago, eta gu ere horrek erakartzen gaitu»

Erraza da metalaren "arima pizturik" edukitzea? Zerk elikatzen du horren sua?

Guretzat bai. Betidanik metala edo heavy metala gurean dagoen zerbait izan da. Taldea izan aurretik ere metala zen elkartzeko puntua. Musika estilo horren indarrak, melodiak eta garrak erakartzen gaitu. Ikusle bezala ere asko disfrutatzen dugu. Gure bizitzako alde garrantzitsua izan da beti, eta oraindik suak pizturik dirau.

Zer ekarri dio Xabier bateria jotzaileak taldeari?

Erraza izan da bat egitea?

Xabier aspalditik ezagutzen dugu, lokalean gurekin ibili zen. Guk garbi geneukan Enekok utzi zuenean Xabier sartu behar zela. Ez genuen ez galdetu ezta bilatu ere, etortzeko esan genion. Bagenekien

nahi izango zuela, eta guk bera nahi genuen. Garrantzitsua da guretzat laguna izatea.

"Musika... zure aurrean makurtzen naiz". Konposizio batzuetan bezala, hemen ere keinu bat egin diozue Su Ta Gar taldeari?

honetan ez dugu uste halako antzekotasunik dugunik. Hala ere, guretzat luxuzko konparaketa litzateke.

"Edan nahiaren gatibu/ ardoa odol da bihurtu/ bizi berotasun izoztua". Halako poemak Zirkulazio Zuzendari-tzarentzat idatzi dituzue?



Kanta horretan damuari buruz hitz egiten dugu, eta istorio horrek oso ondo adierazten duela uste dugu; une bateko ekintza batek bizitza osorako izan dezakeen zama. Hitzak egiten lehengo bateria jotzaile Enekok lagundu digu, eta gero Rubenek eta

Guretzat mitikoak dira. Txikitatik jarraitu ditugu, eta horrelako keinuak gustuko ditugu. Bi diskoetan egin ditugu antzeko keinuak; bai hitzetan, abestien ordena egiterakoan... Agian nahiko frikia da, baina guri asko esaten digu. Musikan, berriz, disko

haren lagunek borobildu dituzte. **Iluntasunak eta horren itzalak seduzitzen zaituztete?**

Bai. Heavy metalaren historia iluntasunarekin lotuta dago, eta gu ere erakartzen gaitu bai hitzetan, bai diseinuan. ■

Ezpalak

JON TORNER

Musikaren industriak laguntza eskatu die instituzioei



MIRANDABROOKE.BUZZNET.COM

MUSIKAREN sektoreko 50 bat enpresek Euskal Herriko Musika Industriaren Plataformak (EHMIP) aurkeztu dute. Tartean dira hainbat grabazio estudio, sustatzaile, soinu eta argi teknikari, areto eta diskoetxe. Plataformako kideek *Zure musika, gure lanbidea* manifestuan bildu dituzte euren hausnarketa eta eskaerak. Musikaren industria “kolokan” dagoela diote, krisiak sektorea gogor kolpatu duela. Hala, instituzioei eskatu diete laguntza emateko. “Nola liteke beste sektore batzuk suspertzeko laguntzak onartzea eta musikan ezer ez egitea?”, adierazi du Igor Otxoa EHMIPeko bozeramaileak. Plataformak osatzen duten kideetako batzuk: Abar Produksioak, Kultura Live, Euprel, Baga Biga, Balea Musika Ideiak, Discos Suicidas, Hilargi Records, Kap Produksioak, Lur Soinuak, Serrano Produksioak, Radiation Soinua eta Shot Grabazioak.

dFeria aurten ere egingo da

KRISIAREN ONDORIOZ, aurten ez zela dFeria antzerki eta dantza azoka egingo esan zuen urtarrian Donostia Kulturak. Sektoreko eragileekin bildu ostean, ordean, egitasmoarekin aurrera jarraitzea erabaki dute. Emanaldi gutxiago izango dira, hori bai, euskal taldeenak guztiak. Egitaraua osatuko duten hamabi ikuskizunen zerrenda aurrerago jakinaraziko dute. Ekainaren amaiera aldera egingo da dFeriaren “trantsiziozko” edizioa.

Ugarte

Nekazalturismoa

Bebailara.

20159 ASTEASU

Tel.: 943 69 27 22 / 657 72 53 21

e-posta: legarrayolan@yahoo.es

www.nekatur.net/ugarte

Kaotiko punk talde arabarrak seigarren diskoa plaza-ratu du: *Reacciona!* (Baga-Biga). Martxoaren 6an Donostiako Doka antzokian aurkeztuko du lan berria, 20an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan eta Apirilaren 8an Bilboko Kafe Antzokian.

Hika Teatroa konpainiaren *Aitarekin bidaiak* antzezlanak jasoko du Euskararen Udal Patronatuak eta Donostia Kulturak ematen duten Donostia saria. Iaz estreinatu eta



Gipuzkoako hiriburuan ikusteko parada izan zen euskarazko obra onenari eman diote saria. Alzheimerra duen gizonaren (Jose Ramon Soroiz) eta haren semearen (Joseba Apaolaza) arteko harremana jaso du istorioak, Jabier Muguruzaren zuzeneko musikarekin. Martxoaren 27an jasoko dute Donostia saria, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Victoria Eugenia antzokian.

Jose Antonio Agirre EAEko aurreneko lehendakariaren heriotzaren 50. urteurrenean, Sabino Arana Fundazioak www.lehendakariagirre.eu webgunea jarri du abian. Haren testu, argazki, film eta audioak sare-ratu ditu, orotara 1.000 dokumentutik gora.

Irati Goikoetxearen *Trena handik datorrenean* (Narratiba) eta Nerea Beldarrainen *Abernua: butsaren oroitzenak* (Poesia) lanek irabazi dute Iparragirre saria, euskarazko atalean.

● **Aingeru Epaltza idazleak Euskonews & Media agerkari digitalean:** «Noizbait idatzi nuen zein izan den luzaz nire eta nire inguruko zenbaiten sentipena: ‘Nafarren artean euskaldunegia, eta euskaldunen artean nafarregia’. Esaldiaren azken atala apaltzen hasia zen azken urteetan –areagotu, berriz, lehenbizikoa– eta hara non berriz sumatzen hasi naizen lehen-go sentipen deseroso bera. ‘Lopez efektua’, nonbait. (...) Zertaz idatzi ez zaigu faltako [2020an], ez baitut miraririk espero gure paisaia mindu eta nekatuan. Zaharragoak izanen gara eta leporainoago egonen gara gure kontu triste guztiez, baina aldatu, ez diot nik deus aldatzeko itxurarik ikusten. Non ez den gazte belaunaldi bat etortzen eta gu guztiak –idazleak, kazetariak, politikoak, musikariak, terroristak, historialariak, euskararen militanteak...– zartako batez erretirarazten, oihuka egiten digutela: ‘Segi hemendik, kalamidadeak!’ Horretan da nire esperantza apurra».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Neguko poesia

ZEHARBIDETAN heldu ziren Hendaiara Jose Angel Irigaray poeta eta Bixente Martinez musikaria, Neguko poesia emanaldiaren kariatz heldu ere. Akelarrek aterbeturik, poesia doinuz lagunduriko zehar-esana dela adierazi ziguten eleen sorgintzaileok. Hitzaren gezurrean egia aurki dezakegula gatzigatu zigun poetak. Egiak hegietan eraikiak direla, hegietan amiltzeko zorian iraungitzen direla.



Egun batzuk lehenago Koldo Izagirre poeta heldu zen Bidasoara. Trena galdu zuen nonbait berari begira zegoela eta poeta hau ere zeharbidetan heldu zen. "Emakumeak trena hartu zueneko" hitzaldia eskaini zigun Irungo Kabigorriko lagunaren eskutik. Emakumea behiala jokatu zuen bestelako harreman mota bat eskatzen ari dela, emakumeak poesiatan trena hartu zuela erran zigun, gizonezkora dela orain trenaren zain dagoena. Egungo iraultza bakarraren trena non abiatu zen xehe-xehe kontatu zigun. Rolak aldatuz doaz, emakumea ibili badabil, gizona geldirik dago.



Aste bat geroago heldu zen Kabigorriara Andoni Salamero, zeharbidetan, Koldo Cadierno musikariarekin batera. Zumarragatik heldu ziren, trenez, horra paradoxa. Poesia bizitzeko modua da Salamerorena. Poesia idazten du, poesia erreztatzen du, baita poeta gisa bizi ere. Urruñako Titikia ta Handia txalapartariekin "Hitz bidean ttakunka" emanaldia eskaini zigun. Salamerorentzat dena da misterioa. Misterio horrekin harriturik bizi da. Misterio jainkoa izaki, traszendentzia.

Martxoa heldu da. Negua berarekin joanen da. Krisi ekonomikoa gelditzeko heldu da, ordea. Hitzaz ez da krisian halere. Munduan ez da dago gure poeten eleak beste musikatzuten dituzten kantariak. Gerlariak Neguko koar-teletara erretiratzeko bidean dauden garai honetan, poesia ez da izoztu gurean. Theodor Adorno filosofoak Auschwitzeko genozidioaz esan zuena hobeto interpretatzeko garaiz gaude oraindik ere. Poesia bakar batzuen hitz kontua da, bistan da. Sare birtualaren bidezko harremana baino ehundegi pertsonalagoa iruteko balio —ahal— du alajaina. ■



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

BEÑAT ETXEPARE ANTZOKIA

Denboraren museoa
familiarrentzako antzerkia
Tantaka. Albena Teatre
Martxoak 27, 28, 12:00, 17:30

EGINGO AL DUGU...?

- Aek-ren eskutik**
- Zortzi begi antzerki-lana. Giltzikarro.
Martxoak 11, 19:00, Falerina
 - Irudimena ezustean hitzaldia
Fernando Morillo
Martxoak 16, 19:00, Amaia zentroa
 - Akatu, Sexty sexers kontzertua
Martxoak 18, 21:00, Gaztetxea
 - Gari - 16 lore kontzertua
Martxoak 27, 21:00, Jimmy Jazz aretoa

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETANI

- Genbil-txartelak astebeite lehenago ekiniza egingo den liburutegian
- Jakin eta jolas: Antzokiko istorioak
Martxoak 7, 18:00, Ibaiondoko gizarte etxea.
 - Txilxin magikoa.
5 urteik gorako haurrentzat
Magia ikuskizuna. Asier Kidame
Martxoak 24, 18:00, Aranako gizarte etxea
 - Aurorita beli palila
3 urteik 9ra bitarteko haurrentzat
Lur Korla. Ipuin kontalaria
Martxoak 24, 18:00, Pileareko gizarte etxea
 - Hatz txatxongiloak
5 urteik 9ra bitarteko haurrentzat
Iñaki Carretero. Lanlegia
Martxoak 25, 18:30, Lakuako gizarte etxea
 - Eo, hemen nagol
5 urteik 9ra bitarteko haurrentzat
Oihulari Klow. Ipuinak musikarekin
Martxoak 25, 18:00, Hegoalde gizarte etxea

ARTIUM MUSEOA

Aterako hitzak
Gerardo Markuleta
Martxoak 17, 20:00
Emanaldi aretoa. Sarrera doan

IBAIONDOKO GIZARTE ETXEA, ATEAK ZABALIK

Gizarte etxe berrian, martxoak aurrera hainbat ikastaro euskaraz heldu zein haurrentzat: euskal dantzak, marrazketa eta pintura, zeramika, papiroflexia, argazkigintza... Argibideak gizarte etxean berria.

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Mundua ezagutzeko



Zabaldu ateak Nairobitarrari

Zortzi lekutako kontakizun bana. Sahara, Laponia, Patagonia, Andeak, Himalaia, Euskal Herria, Alaska eta Australiako umeen ahotik euren bizimodua ezagutuko dute etxeko txikienei. Non bizi diren, beren etxea nolakoa den, zer animalia dituzten, nolako ohiturak dituzten...

LEHENENGO BIDAIA EGITEKO AUKERA

18€

eskaerak

© 943 371 545 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

argia
JOLASAK

ANA ZAMBRANO

Kike Amonarrizen umorea



Hegazkinen zaratotsa

SHAKI

– Baina zeini bururatu zitzaien dorre hau aireportutik hain gertu altxatzea?

	G	I						B	N	B
B	L	B	O				J	O	S	U
	Z	A	I	T				N	O	L
M	A	U	E		M		B	U	R	A
J	K	A	S	A	K	A	K	A	R	I
s	O	J	A	A	K	A	B	U	A	A
		O	R	A	K		T	O	R	R
A	M	A	I	G	A	B	E	D	I	S
U	R		A	N	E	M	I	A	A	A
Ė	Ń	A	U	T		K	E	B	I	D
O	Z	E	A	N	O		O	L	E	R
Z	I	N	K	I	Z	U	N	T	A	K

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Murchison-eko meteoritoan ustekabeko konposatuak aurkitu dituzte

AUSTRALIAKO MURCHISON HERRIAN 1969an eroritako meteoritoa aztertu berri du Philippe Schmitt-Kopplin kimikariak zuzendutako lantalde frantziar-austriarrak, eta *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak.

Meteoritoa erori bezain laster jaso zenez, ez zuen Lurreko substantziekin kutsatzeko denborarik izan, eta horregatik oso interesgarria da bere baitan gordetzen duen informazioa. Oraingoan, aminoazido ugari topatu dituzte eta 14.000 atomo-multzo desberdin ere bai, aurrez detektatu gabe zeudenak. Aurkikuntza horren arabera, zientzialariek ebatzi dute milaka eta milaka izan daitezkeela meteoritoan dauden konposatu organikoak. Horrek adierazten du Eguzki-sistemak, bere hastapenetan, gaur egun Lurra duena baino askoz molekula-dibertsitate handiagoa zeukala.




ASTROPT.ORG

Munduko ordularirik zehatzena

AEBETAKO NIST institutuko talde batek munduko erlojurik zehatzena prestatu du: aluminiozko ioi bakarra duen ordulari optikoa. 3.700 milioi urte iraun dezake, eta epe horretan izan dezakeen desbiderapena segundo batetik beherakoa da. Orain arte, munduko ordularirik zehatzenak ordulari atomikoak izan dira, zesio-133 atomoaren bibrazioetan oinarrituak. Izan ere, segundo baten iraupen zehatza zesio-133aren bibrazioen arabera definituta dago. Estimatzen da ordulari atomikoek 80 edo 100 milioi urte iraun ditzaketela, segundo bat baino desbiderapen txikiagoarekin.

Ordulari atomikoak ordulari optikoez ordezkatzek zilegi dirudi orain, baina zientzialariek uste dute hobe dela probak egiten jarraitzea, aluminioa ez den beste atomo batekin emaitza hobeak lortuko direlakoan baitaude. Eta ez da ahaztu behar munduan dauden ordulari atomiko guztiak ordezkatzek ez dela batere merkea.



Y kromosomak azkar eboluzionatzen du

Y kromosoma arrarotasun genetikotzat hartzen da. Uste zena baino askoz ere azkarrago eboluzionatzen omen du, eta eboluzio horren azterketa egiten ari dira zientzialariak, batez ere gizonen antzutasunaren zergatiak ulertzeko.

<http://ttiki.com/10747> (Gaztelaniaz)

Nola ailegatu ziren zenbait animalia espezie Madagaskarrera?

Hipotesi ugari izan dira lemurak, azeriak edo mangostak Madagaskarrera ailegatzeko egindako bideei buruz. Indar gehien hartzen ari den teoria da aipatu animaliek itsasontzi naturalean, hau da, enborrez naturalki sortutako ontzietan, bidaiatu zutela.

<http://ttiki.com/10748> (Gaztelaniaz)

Antzinako Egipton, makillajea sendagaia ere bazen

Egiptoarrek berunean oinarritutako makillajea erabiltzen zuten, ustez ederrago aurkezteko euren buruak, baina berriki egindako ikerketa batek azaltzen du makillaje horren bidez tropikoetan hain ohikoak diren begi-infekzioei aurre egiten zietela. Horretarako, Parisko Louvre Museoa dauden laginak aztertu dituzte.

<http://ttiki.com/10749> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Kaixo. Argituko zenidake nola lortu haginaren landarea haziak erabiliz? Hozkailuan gordeta dauzkat eta zenbaite-tan ahalegindu naiz baina alferrik. Mila esker. Maite Madariaga (Bilbo).

Iepa, Maite. Haginak (*Taxus baccata*) berezitasun ugari du: pozoitsua da, dioikoa –ale batzuk arrak eta besteak emeak–, milaka urte bizi da... Euskaldunontzat zuhaitz mitikoa da eta Gipuzkoako ikurra da. Aparteko zuhaitz egiten dutenen arteko beste ezaugarri bat hazien zuntzen gogortasuna da. Honek ernatzea zail-tzen dio, baina baita irauteko babesa eman ere.

Haginaren hazi gogorra biltzen duen fruitu gorri likatsua landare guztiko zati jangarri bakarra da. Beste-lako dena pozoitsua da: hostoa, azala, egurra, baita hazia bera ere. Fruitu jangarria gozoa da, oso gozoa. Honela animalioi eta batik bat hegaztiei jan eta barru-

ko hazia gero oso osorik zirineta bilduta sakaba-natuko dute.

Hegaztiaren digestioak on egingo dio haziari: zuntz zakarrak erroetan urratu eta urdaileko azido-etan beratuko dira. Urra-durak eta beratzeak ernat-zeko behar duen ura hartzea erraztuko dute. Hori gutxi balitz, zirineta bilduta botako du hazia, beste inork jateko tenta-zioak uxatzeko eta ernatzen denerako ongarri dosia eskuera duela.

Naturala den bide honen antzekoa, ahal den antzekoena egiten saiatu

behar zara. Hotzarena garrantzitsua da, bestela negua igaro gabe dagoela uste eta udaberrian ez da ernatuko.

Hona nire proposamena: udazkenean hazia bilduta-koan, fruitu likatsua kendu eta hondarretan sartu. Hondarrez betetako ontzi hau kanpoan eduki lorontzi baten gisara, euriak bustitzen duen tokian, ahal bada, bestela tarteka ureztatu. Neguaren amaieran hazien erdiak atera, hondarrarekin nahasian eskuetan igurtzi eta egun pare batez ur epeletan beratzen eduki. Lur gozotan erein eta maiz ureztatu. Hazien beste erdia urtebetez hondarretan mantendu, lorontzia bailitza ureztatuz. Beste erdiarekin egindako bera hurrengo udaberrian egin. Denetatik erdiak ernatzen badira kraxkitinka eta irrintzika hasi...

TIM WATERS



Lupuak heldu

“HAGO GELDIK KURKUBIOI”, esan ohi diote Sakana aldean beti dantzan dabilenari, eta Gipuzkoa finean kurkubiari poxpolin. Ttikia da kukusagarra, “kurku-bia baino handiagoa ez da eta...” diote, konparazio batera, Zerainen. Ttikia baina, jolaserako egokia, forma halakoa. Kaniketarako adibidez, lurrean mugatutako borobiletik ez ateratzera. Baita ziba gisa-ra, etengabeko dantzarako. Lastoaren ipurdi aldeko puska lodiena ahoan hartu eta handik putz eginez ea nork eusten zion kukusagarrari ginean luzeen...

Tumorea, lupua da kukusagarra. Landarearen bizkar bizi nahi duen apopilo argi batek eragiten du tumorea. Apopiloa onddo bat edo animaliairen bat da gehienetan. Onddoak, landarearen barrura sartzean zuzenean berak kutsatzen du. Animaliak, aldiz, bere ondorengoak sortzeko jarriko dituen arrautzei habia proposa antolatzerakoan landareari egiten dizkion zaurietan. Guretzat ezagunenak diren kukusagarrak intsektu zinipido baten eta landarearen artean eraikitzen dira. Intsektu emeak haritzaren begi batean arrautza jarriko du, begia hazteko beharko lukeen energia eta izerdia kukusagarra izango den tumore bihurtuko da, eta bere barruan intsektu kumea haziko da. Gero, kumea heltzen denean, zulo bat egin eta lasai asko irten eta alde egingo du.

Geurean landareen lupu ohikoenak haritza eta ametza jotzen dituztenak dira, zuhaitz geureeneta-koak, begiratuenetakoak baitira. Makina bat lupu bada bestela ere: artean, pagoan, astalarrosan, zumean, sahatsetan, makaletan, zumarrean, ezkian, mahatsean, hatzan, lizarrean, intxaurrean, muxikan, almendrondoan, artoan... Oraintxe nonahi bada luputik eta gure irain iraintzaileena “lupuak helduko al dink”. Jolasetik irainerako tarte intsektu arrautza niniño bat.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiarta 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

2.500 urteko eta 282 kilometroko maratokia

WWW.WIKIMEDIA.ORG



Ezkerrean, Filipidesen eskulturak soldadua Atenasera hiltorian iritsi zeneko unea irudikatzen du (Parisko Louvre Museoa). Eskuinean, gaur egungo maratoi jendetsuetako bat, New Yorkekoa zehazki.

WWW.INGMARATHON.COM



MARATHON (GREZIA), K.A. 490. Atenastarrak eta pertsarrak elkarren aurka borrokatu ziren Marathoneko Guduan, izen bereko lautadan. Lehenago, atenas-tarrek pertsiarren aurka altxatutako hiri joniarrei laguntzea erabaki zuten. Orduan, pertsarrak Marathonen lehorreratu ziren Atenaseko armadaren aurka egiteko. Baina soldadu atenas-tarrak izan ziren eraso gogorrera jo zutenak. Pertsiar asko hil zituzten, eta bizirik eutsi ziotenen atzera zintziratu eta ihes egitea beste erremediorik ez zuten izan.

Garaipena lortuta, Filipides soldadua Atenasera bidali zuten hiritarrei berri ona eman ziezaien. Marathonetik Atenasera arteko 42 kilometroak lasterka egin ondoren, "irabazi dugu" esan eta hil egin omen zen, nekeziak jota.

Baina Filipides ez zuen historiako lehen maratoi hark soilik hil. Lasterketa luzea errematea baino ez zen izan harentzat. Lehenik Espartara bidali zuten laguntza eske eta 240 kilometro egin behar izan zituen bi egunetan. Ahalegin horiei guduan bertan borrokan aritu zela erantsiz gero, Atenasera iristean hil izana baino iristea bera da harritzekoa.

1896an, Atenasen egin ziren lehen Olinpiar Joko modernoetan, maratoi izeneko lasterketa luzea antolatzea erabaki zuten, Filipidesen balentriaren omenez. Greziar armadako ofizial batek Spiridon Louis izeneko artzaina aukeratu zuen bere herrialdea ordezkatzeko. Lasterketa baino lehen, Louisek bi egun eman zituen baraurik eta otoitzean. Lasterketaren amaieran lehen tokian eta bakar-bakarrik zeharkatu zuen helmuga, herrikideen txalo artean. Hala, greziarrek ohoreari eustea lortu zuten, Olinpiar Joko klasikoen sortzaileek 1896ko joko horietan irabazi zuten atletismoko proba bakarra izan baitzen.

Emakumeentzat, aldiz, garaipena askoz beranduago iritsi zen. 1970eko hamarkadan hasi ziren zenbait hiritako maratobietan parte hartzen eta, lehenengoz, 1984ko Los Angeleseko jokotan izan zuten 42 kilometro pasatxo horiek lasterka egiteko aukera.

Aurtengo Atenaseko maratoiaren ere parte hartu ahal izan dute eta, hala, Filipidesen egitandiak 2.500 urte bete-ko dituzenez, soldaduari omenaldia egingo diote.

Arrastoak

Pinochetek Frei presidente ohia pozoitu zuen

CESAR AUGUSTO PINOCHET Txileko diktadore ohiak Eduardo Frei Montalva, 1964tik 1970era herrialde bereko presidente demokratikoa izana, pozoitzeko agindua eman zuen, berriki amaitutako prozesu judizial baten arabera.

Allenderen aurkari sutua, Freik bat egin zuen hasieran Pinochetek kolpearekin. Baina berehala diktadura kritikatzeko hasi zen. Pinochetek Freiri segimendua egiteko agindu zuen, 1981ean presidente ohia garbitzeko aukera aprobetxatu zuen arte. Eduardo Freiri ebakuntza egin behar ziotenean, erietxean talioz eta ziape gasez pozoitu zuten. Osasun arazoak areagotu egin zitzaizkion Freiri, eta 1982ko urtarilean hil zen. Senitatekoek ezohiko zenbait elementu antzeman zituzten, baina ia 30 urte egon dira zain susmoak baieztatzeko.

WWW.COSMOLOAN.COM



Arrasateko kooperatiben bigarren iraultza

Debagoieneko Leintz Bailaran kokatua dago oraingo lurrikara kooperatiboaren epizentroa.

Bagara elkarte berria ari da mugimenduaren dinamizatzaileran, Fagor Taldea, MUko Huhezi eta Arizmendi ikastolaren gerizpean. Espiritu kooperatiboa XXI. mendera berregokitu eta gizartea aldatzeko tresna gisa baliatu gura dute. Esperientzia pilotua abian da, eta gaurkoz badu sinesgarritasunik. Martxoaren 11n aurkeztuko dute Arrasaten.

XABIER LETONA

Argazkiak: Iñigo Azkona

DUELA 50 URTE pasatxo Arrasaten lehen kooperatibak sortzen hasi zirenean “pertsona berria” zuten buruan sortzaileek. Langileentzat urrutiegi joatea izango zen hura seguruenik, baina zituzten printzipioak oso sendoak ziren: “Hau gurea da” eta “hau guk atera behar dugu aurrera”. Nola? Lan, lan eta lan gehiagorekin. Jabetza kolektiboa, autogestioa eta lana. Horra

Arrasateko kooperatiben esperientziaren hiru ardatz nagusiak.

Gipuzkoako Debagoiena eskualdean garatu da esperientziaren muina eta bere arrakasta itzela izan da, zentzu guztietan, baina bereziki arlo ekonomikoan. Bailara Euskal Herriko aberatsenetakoa da eta, garrantzitsuena, aberastasun hori sozialki ondoen banatutako eremua da.

Baina alor batzuetan biziki garatu den moduan, Jose Maria Arizmendiartaren “pertsona berria” eta bestelako gizartearen bultzadan oso motz geratu da. Balore eta identitate

kooperatiboei begira, krisi sakonarekin sartu ziren XXI. mendera.

MCCn eta bereziki Fagor Taldean emandako hausnarketa sakon eta luzeak zerbait egin beharra zegoela agintzen zuen. Eta testuinguru horretan, enpresa kooperatiboak bere lurraldearekin eta herrigintzarekin beste lotura maila bat izan behar zuela ikusi zuten batzuek. Hor sortu zen Bagara elkarte, kooperatiben munduko ohiko baloreak berreskuratu, egungo beharretara egokitu eta Leintz Bailaran gizarte eraldaketa bultzatzeko elkarte.

Ezkerrean Fagorreko lantegi bat eta behean Arrasateko erdigunea.



Iraitz Agirre eta Aitzol Loyola, belaunaldi berrien ikuspegia "Kooperatibek egindakoaren bigarren buelta dator orain"

Iraitz Agirre Aranguren Bagaran ari da lanean egun erdiz eta beste erdiz Lankin, kooperatiba eta gizarte ikerketarako Huheziko institutuan (Eskoriatza, Gipuzkoa). Arrasatearra da eta 26 urte ditu. Aitzol Loyola debarra duela urtebete etorri zen Lankira lanera, 34 urte ditu.



Zer topatzen duzue erakar-garri Bagara moduko proiektu batean?

IRAITZ AGIRRE. Gizarte oso indibidualista dugu, egunorokotasunean suntsitzaila, bai gurekiko eta bai inguratzen gaituen munduarekiko. Gizarte mailan dauden kezka pila bati modu txikian erantzuteko prest agertzen den proiektu ilusionagarria da Bagara.

AITZOL LOYOLA. Debatik etorri nintzen duela urtebete eta hemen bizi naizela, honelako egitasmo batean parte hartzeko aukera gauza ederra da.

Gazteentzat formazio soziopolitiko eta ekintzailea proposatzen duzue hasteko. Zergatik?

A.L. Funtsean onartzen da egitasmo honetan gazteak garrantzitsuak direla bailararen biziberritzean. Interesgarria dela bailararen historia ezagutzea, izan diren hainbat herritar dinamika ezagutzea... gero gazteak herri dinamiketan eragile aktibo izan daitezten.

I.A. Ekinean dago gakoa. Teoriak eta paperak denari eusten diote, baina ekinak erakusten du garena. Gazteak gauza askotan ari gara, baina elkarren arteko sinergiak falta dira, ekintzailetasun hori norabide batean bideratzea.

Autogestioa, kooperazioa, gizarte eraldaketa... gazteak ikusten al dituzue kezka horiekin?

I.A. Bai, gizarte garapena herrigintzaren ikuspegitik ulertzen dugu guk, eta hau hainbat sektoreentzat erakar-garria izango da.

A.L. Norberak eman behar dio bizitza bizi den lekuari, hori da egin beharrekoaren oinarria eta gazteek erraz egin dezake-te bat printzipio horrekin.

Aurrera begira, zer irakaspen hartuko zenukete orain

arteko kooperatiben mundutik?

I.A. Gure belaunaldiak beti ezagutu du kooperatiba hemen eta badugu zelanbaiteko etsipen maila bere bilakaerarekiko. Atzo bertan irakurri nuen Joseba Azkarraga lankidearen artikulu batean, munduko biztanleak bailara honetako ongizate mailarekin biziko balira, hiru planeta beharko genituzkeela. Horrek aurrez aurre jartzen gaitu dugun errealitatearekin, horrela ezin da. Egia da, badugu kooperatiben mundutik datorren lekukoa, baina orain bigarren buelta behar du eta, esperimentuak jarrai dezan, hori belaunaldi berrioi dagokigu. Ez dugu formula perfekturik, baina lehengoan filosofia hartu eta ekiteko potentzial handia ikusten dut.

A.L. Bai, goazen dagoen beharrari erantzutera inori itxaron gabe. Kooperatiben hasieran elkartasuna eta balore kolektiboak garrantzi handikoak ziren eta horiek indartu behar ditugu bailara biziberritzeko ahalegin honetan.

Balore horien galerarik ikusten al duzue?

I.A. Bai, krisiaz ari garenean ez dut uste bakarrik ekonomia krisia denik. Krisi ekologikoa ere hor dago, kulturala, euskaltasunarena... Eredu horietan eta beste hainbatetan formulazio berriak behar dira, eta baditugula uste dut.



Eredu kooperatiboa eta autogestioa medio, Debagoienan transformazio prozesua akuilatu gura dute. Euren berbetan azalduta: "Gizartea humanizatzeko norabide integratua da Bagara, bailarako

eragile kooperatibo eta sozialek bultzatua. Eskualdearen indargune bereziak baliatuz eta bailara esperimentazio gune bihurtuz, prozesu zibil zabal bat martxan jartzen du mende berrirako helburu sozialei begira". Lehen urratsean, Leintz Bailara izango da esperimentuaren gunea, 35.000 pertsonako espazio geografikoa: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz-Gatzaga.

Fagor Taldea, MUko Huhezi Fakultatea eta Arizmendi ikastolaren itzalak dira proiektuaren atzean.

2007 eta 2008an teorizazio fasean aritu dira Huhezi-ko Lanki ikertegiaren gidaritzapean, eta 2009-2010ean praktikarako jauzia prestatzen. 2011n ikusiko ei dira lehen fruitu zehatzak.

Kooperatiben eremua eta hezkuntza dira landu beharreko harribitxiak, baina gizarte mailako beste esparru batzuk ere lehenetsi dituzte: erretiro aktiboaren esparrua, etxebizitza, kontsumoaren humanizazioa, kultur sorkuntza, gazteen heziketa, nazioarteko elkartasuna eta hizkuntza komunitatea, besteak beste. Proiektu ugari

Txaro Iraeta eta Juan Jose Ansoategi, beterranoen hausnarketa "Bagara proiektua ausarta da eta baikor gara, ondo aterako da"

Txaro Iraeta Euskal Herriko ikastolarik handiena den Arizmendi ikastolako (3.100 ikasle) zuzendaria da. 35 urte darama lanean Leintz bailarako eskola kooperatiboetan. Juan Jose Ansoategik 33 urte darama lanean kooperatibetan. Gaur egun Fagor Taldeko (8 kooperatiba eta 6.300 langile) lehendakaria da.



Nola baloratzen duzue kooperatibetako bilakaera?

TXARO IRAETA. Izandako ibilbidearen balorazio kritikoa egitean, argi dut oso aberatsa izan dela, baina jadanik ez naiz hain baikorra. Hutsune eta akats handiak izan ditugu eta gure esperientziaren hausnarketan ari ginela iritsi da Bagara, bigarren aukera bat, orain arte egin ez duguna gauzatzen hasteko.

JUAN JOSE ANSOATEGI. 2003-2006ko urteetan kooperatibei buruzko oso hausnarketa sakona izan genuen MCCn. Ehundik gora kooperatibetako lehendakariak parte hartu genuen prozesuan eta diagnostikoa gogorra izan zen: izpiritu kooperatiboa alboratzen ari ginen. Diagnostiko horrekin batera hiru helburu finkatu ziren: bat, derrigorrezkoa zen hezkuntza kooperatiboa ondo jorratzea; bi, parte hartzea bultzatzea arlo instituzionalean eta enpresarialean; hiru, eraldaketa soziala. Fagorreko jendea indar handiz aritu zen prozesuan.

Eta diagnostiko horrekin zer egin zen gero?

J. J. A. Prozesu hau mugarri bat izan zen, joera bat apurto zuen eta osagai berriak jarri zituen mahai gainean. 2006an Fagorren hausnarketan sakontzen jarraitu genuen eta egindako gogoetatik sei ondorio atera genituen aurrera begira lantzeko: bat, balore eta praktika kooperatiboen galera; bi, izaera sozio-enpresaria indartu beharra; hiru, gure baloreen biziberritzea; lau, kooperatiben berrikuntza instituzionala eta enpresaria; bost, Fagor gizarte harremanetan proaktiboa izan behar da, mugimendu sozialekin harremanak sakonduz; eta

sei, eskualde garapenean eragin behar dugu.

Gero gai horien inguruko helburuak finkatu genituen: Fagor barrura begira errentagarri izatea —hau barik ez dago ezer— eta enplegu kooperatiboa sortzea lehen mailan jarritz. Izan beharreko etika garbiaz ere jardun genuen: adibidez, behin-behineko lanpostuak ezabatu edo murriztu behar ditugula ondorioztatu genuen,

hori guretzat minbizia delako. Gizartera begirako helburretan eraldaketa sozialean ere eragitea atera zen.

Gizarte eraldaketarako hezkuntza funtsezkoa da.

T. I. Arizmendin egindako gogoetan bi ondorio nagusitara iritsi gara. Gure ikastola kooperatiboan ez dugu irakatsi zer den kooperatibismoa, ikaslea berau sentitu barik atera da. Ikasgai hori suspenditu egin dugu. Ikastolen eta kooperatiben izaera transmititu behar diegu gure ikasleei: lan kooperatiboa, autogestioa, euskaltasuna...

Baina ikasleei hori transmititzeko ikastolako lan-bazkideok kooperatibaren izaera hori guk sinetsi behar dugu lehenbizi. Horren guztiaren ondorioz, talde txikiagoetan antolatu dugu lana, hauek autogestionatu egiten dira eta erabakiak egunerokotasunean hartzen dira. Horrek sinesgarritasuna ematen digu. Ikusten dugu Bagarak bailararentzat dituen asmoak eta guk ikastolarerentzat ditugunak bat datozela.

J. J. A. Oraintsu arte errentagarritasuna lortzeko pentsatu dugu makinak direla funtsezkoena, baina osagai humanoa dago tartean. Tresna berdinarekin, pertsonak emaitza desberdinak lortzen dituzte, komunikazioa eta harremanaren bidez. Horrek esan nahi du hezkuntza kooperatiboa ona dela pertsonentzat baina baita errentagarritasunerako ere. Euskara planak izan behar dute langileak euskaraz hitz egin dezan, baina baita identitate kooperatiborako ere. Bagara proiektua ausarta da eta baikorra naiz, ondo aterako da. Ona izango da eskualde honetarako eta baita Euskal Herriko ere.

dituzte buruan: etxebizitza alternatiboen proiektu pilotua, emakume etorkinen kooperatiba, "ongi etorkin" euskalduntzeko programa, produktu ekologikoen banaketa sarea, kooperatibagintzaz ostatu tematikoa, kafe antzokia, arte eskola, eskualdeko hezkuntza eragileen klusterra... Lan batzordeak eratuak daude, orain bakoitzaren martxak finkatuko du proiektuen abiada.

Krisi sasoiak gogor jo du eskualdea eta, patrikatik begiratua, agian hau ez da Bagarako piszinara jauzi egiteko unerik egokiena. Edo akaso horrexegatik bai, batek daki. Kon-

"Leintz Bailaran jende erreferentziala bildu da Bagarara eta indarra eta ilusioa sumatzen dira"

tua da aurrera doala, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arrasate eta Aretxabaletako udalen laguntzarekin.

Martxoaren 11n egingo dute Bagararen aurkezpen publikoa Arrasaten, Amaia Antzokian. Bailaran jende erreferentziala bildu da saio berri honetara, indarra sumatzen da eta, aspaldikoz, ilusioa ere sektore zabaletara barreiatu da.

Jon Sarasua eta Juan Luis Arexolaleiba

«Ez dugu ezer utopikoa egin nahi, baina herrigintzan norabidea jarri bai»

Juan Luis Arexolaleiba (Arrasate, 1964) Bagarako koordinatzailea da eta Jon Sarasua (Aretxabaleta, 1966) Mondragon Unibertsitateko Lanki Lankidetzarako ikertegiko zuzendaria. Esperientzia kooperatiboa herrigintza molde berri batean berkokatu guran dabilta.

Azaldu modu labur batean proiektuaren muina zein den.

JON SARASUA. Gure bailaran tresna eta indargune bereziak biltzen dira eta, gizarte antolatuaren indarretatik abiatuta, herrigintzan jauzi kualitatiboa emateko abiatu den prozesua da.

JUAN LUIS AREXOLALEIBA. Lau osagai bateratzaile identifikatu ditugu: euskaltasuna, elkartasuna, iraunkortasuna eta hiru ipar hauek bideratzeko herritar eta erakundeen autoeraketa edo autogestioa. Eta abiatzeko, aipatutako osagai horiekin hiru arlo jorratzea pentsatu genuen. Bat, kooperatibagintza: izaera sozio-empresarialean sakonduz, barrura eta kanpora begira urrats berriak eman behar dira. Bi, hezkuntza arloan ere esperimentalak izateko arrazoi eta aukerak baditugu. Eta hiru, sustapena deitu duguna, gure gizartean premia duten bederatzi arlo identifikatu ditugu herri-ekimenetik hauetan eragiteko asmoz.

J. S. Proiektu sozial integratua da hau eta bere atzean bailarako indar kooperatibo eta sozialak daude. Zer da integratzen dena? Herrigintzan ari diren gizarteko gune eta eragileen arteko norabideak bateratzean datza prozesu honen giltzarrietakoa. Gure bailara izan da “esperimental” gauza batzuetan eta beste jauzi prestatzen ari da orain.

Zergatik orain?

J. S. Belaunaldi baten bultzada da. Sustraletako bat da kooperatibagintzan azken hamar urteetan egin dugun gogoeta. Hor adar asko atera

dira, baina horietako bat da kooperatibagintza herrigintzaren zerbitzuan sortu zela eta XXI. mendeko kooperatibagintzaren berrideologizazioa herrigintzara bideratu behar dela.

Noranzkoa da jauzi hori?

J. S. Lehen Arexolaleibak lau ipar nagusi aipatu ditu. XXI. mendean gizartea euskaratik ulertzen dugu eta aurrerapausoak eman nahi ditugu. Beste bat autoeraketarena da, mundu mailan gune pribilegiatu batean gaude, baina kooperatibagintzak ere baditu higadura zantzu esanguratsuak eta kontraesan ugari.

“Heldu da unea kooperatibagintza honen kontraesanak gainditu eta herrigintza molde berri batean txertatzeko”

Jauzi kaulitatibo bat eman gura dugu identitate kooperatiboaren berreskurapenean. Salto kualitatiboa hezkuntzan, herrigintzari lotuago egon dadin. Eta berdin sustatzeko hautatu ditugun bederatzi arloetan. Baina jauzi kualitatibo handiena zera da, arlo guztiak prozesu bakarrean kokatu ditugula ikuspegi integratu batetik bultzatzeko.

“Nekatuta datorren korrikalariari”, kooperatiba zaleari erreleboa eman nahi diozue. Nola eraman nahi duzue aurrera lekukoa?

J. S. Arrasateko esperientziak argi-ilun asko dauzka, ez gaude hemen bere apologia egiteko. Batetik, sistema kapitalistaren barruan ondo txertatzen den fenomeno da, baina bestetik baditu ukaezinak diren eraldaketarako osagaiak. Heldu da unea kooperatibagintza honen kontraesan horiek mugitu eta herrigintza molde berri batean txertatzeko, edo bestela seguruenik esperientzia hori ez zaigu interesatzen gutako askori.

XX. mendeko beste ideologia emantzipatzaile batzuk iritsitako lekura iritsi dira eta XXI. mendea galdera ideologiko berriei dator. Horiei erantzuteko autoeraketa intuitzio garrantzitsua izango da. Hori da bereziki Arizmendiartarengandik interesatzen zaiguna, pentsamendu autogestionarioa. Bere autoeraketa eredu oso garai desarrollista batean kokatzen da eta guk beste era batera ulertzen dugu, baina tresna moduan ardatza izango da. Bailarako prozesu hau desafio praktikoa da, baina baita ideologikoa ere.

Sustatzeko bederatzi arlo aipatu dituzue [begiratu erreportaiaren zintzuk]. Zein lehentasun daude horien artean?

J. L. A. Denak dira lehentasunezkoak. Dagoeneko arloetako parametro nagusiak zehaztu ditugu eta sei lagunez osatutako taldea eratu dugu arlo bakoitzeko, diagnostikoan sakondu eta proiektu zehatzak egin ditzaten. 2010etik aurrera oso proiektu praktikoa izango ditugu esku artean. Une horretan ikusiko dugu eremu bakoitzean zer egiteko gai garen.



Juan Luis Arexolaleiba, ezkerrean, eta Jon Sarasua Aretxabaletako kaleetan; bertan du egoitza Bagarak.

Zer dira egitasmo praktiko horiek, adibidez?

J.S. Nekazaritzan, esate baterako, nekazari gazteak jardun horretatik bizi ahal izateko proiektuak gauzatzeari: elikadura sareak eta kontsumo taldeak sortu; emakume inmigranteekin kooperatiba bat egin agian, hauek euskalduntzeko plan pilotu sakona, etxebizitza kooperatiboak bultzatu, etxebizitza behatoki bat... Hemendik urte t'erdira 20-30 proiektu zehatz izan ditzakegu esku artean, lanean ari den talde bakoitzak aurreratzen duen arabera. Horregatik esaten dugu hau ez dela proiektu bat, prozesu bat baizik.

Eta ekimen horiek guztiak ez dira batez ere instituzioek bultzatu beharrekoak, arlo publikoak?

J.S. Batzuk bai eta beste batzuk ez. Gaur egun nork egiten ditu gauzak

gure gizartean? Ekimen publikoak —estatuak— badu bere esparrua, kapitalak edo merkatuak berea eta gizarte ekimenak ere berea. Zer dagokio gizarte ekimenari eta zer udaletxeari? Etorkizuneko debate nagusietakoa da, gurean espermentatzea dagokigu

"Kooperatibagintza eta euskalgintzari dagokienez hau jarrauzi bat da, hau da, jarraidura eta jauzia"

udaletxeak bere zeregina izango du eta gizarte ekimenak berea. Ez dugu aurreikusten instituzio publikoen burokraziapen bizi den herri bat. Guk ez dugu lehiarik gura udaletxeekin, elkar osa dezakegu.

J.L.A. Bailara honetan gauza asko egiten dira, baina ez daude elkar lotuta, ez dago osotasunik, eta guk ipar ilusionagarria jarri gura dugu. Gazteen esparrua jorratzen ari ginela, esaterako, gazteen aisialdia arloari ekin genion, baina berehala ohartu ginen ez zela hori; guk gazteen konpromisorako heziketaz ari ginela adostu genuen. Beste bat, euskalgintza: bailaran gauza asko dira jada, gu ez goaz elkarre berri bat sortzera, baina iparra bai berfinkatu behar dela eta horretan eragin nahi dugu. Ez gaude iraganeko erreferentziei begira, munduan egosten ari diren esperientzia interesgarriak jaso eta bertako unibertsitateak duen gaitasun intelektuala aprobetxatu nahi dugu herrigintzara eramanez.

J. S. Kooperatibagintza eta euskalgintzari dagokienez, hau *jarrauzi* bat da, hau da, jarraidura eta jauzia. Belaunaldi baten kontua da nola bait.

Eta ez ote da posible halako ekimen bat indartzen bada, instituzioek, alderdi nagusiek, berau mehatxu gisa ikustea?

J. S. Orain ez, baina epe ertainera agian bai. Hemen gizarte antolatua-ren esparrua indartsua da, baina bertako agintari publikoak ere, oro har, herrigintzari nahiko lotua daude eta lotu gaitezke bailaran humanizazio prozesu berrietan espermentatzeko. Ez dugu ezer utopikoa egin nahi, baina norabidea jarri bai. ■



gure artean euskaraz

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

Urte beltza, iazkoa bezala

Maiatzaren 31tik ekainaren 5era, Barakaldoko BECen Espainiako Makina Erremintaren Biurtekoa burutuko da. Krisialdi ekonomiko orokorraren eraginaren ondoren, nagusiki esportatzailea den eta ia erabat Hego Euskal Herrian bilduta dagoen sektorearen egoera 2011 inguruan hobetu daitekeela aurreikusten da.

DANIEL UDALAITZ



2008ko Biurtekoa, BECen. Aurtengoak ere 2.000 erakustoki inguru bilduko ditu eta dozenaka milaka bisitari.

DUELA ZENBAIT HAMARKADATIK BIEMH Espainiako Makina Erremintaren Biurtekoa Bilbon burutzen da. Eta 2010 honetan biurteko horren 26. edizioa egingo da. AFM Makina Erreminta Fabrikatzaileen Elkarteak, BECekin batera antolatzen ari da eta maiatzaren 31tik ekainaren 5era burutuko da Barakaldoko azoka-eremuan. Sektore honetako Europako hirugarren azoka garrantzitsua izaki, biurteko honek mundu osoko dozenaka milaka bisitari eta 2.000 erakustoki inguru bilduko ditu. 2008an burutu

zen azken edizioan, biurtekoak BECeko 57.322 metro koadro hartu zituen, 1.761 erakustoki bildu ziren eta munduko 42.000 profesional ingururen bisita jaso zuen.

Aurtengoan ere munduko fabrikatzaile eta banatzaile nagusiak bilduko dira, bisitariek espezialitatean lider diren enpresen azken berrikuntzen eta zerbitzuen berri jaso ahal izan dezaten. Noski, euskal ordezkartza nagusietakoa izango da, sektore honek Euskal Herrian (100 enpresa eta 5.000 enplegu) eta European duen garrantzia dela eta.

2010eko biurtekoak Euskal Herrian eta munduan hain garrantzitsua den sektore hau 2011tik aurrera erreku-peratzeko lorbidea zabalduko du.

“Biurteko beltza” betetzen ari da

Testuinguru sozioekonomikoa ez da egokiena industria sektorean, baina 2011tik aurrera aukera hobekak aurreikusten dira. Argi dago CECIMO metalak lantzeko Europako Makina Erreminta Ekoizleen Elkarteak egin zituen aurreikuspenak betetzen ari direla, astekari honek iaz nabarmendu bezala. CECIMOk

Ekintza bateratuak behar dira

"Metalak lantzeko makina-erreminta ekoizleek produktuen eta merkatuen baldintza aldakorretara etengabe egokitzeko lan funtsezkoa egiteko daukate oraindik, eta sektoreko enpresen tamaina txikiak ez du horretan laguntzen...". Horixe dio Carmelo Urdangarin, makina-erreminta ederki ezagutzen duen analista ekonomikoak *Empresa XXI* aldizkarian berriki argitaratutako artikuluan. Enpresen tamaina txikiaz ari denean, gehienak familia

enpresak baitira, "30 langileko enpresa txiki edo ertain batek fabrikazio programa eta ekoizpen teknika eguneratuak izateko aukera oso zaila" dela dio. Hala, ezin dute lehiatu herrialde ekoizle nagusietako enpresa handiagoeekin, bi alor jakinetan behintzat: produktua eta merkaturak. Enpresa txiki batek, bere kabuz, ezin du merkaturatzea kudeatu egungo merkatu globalan, bereziki Asian eta beste herrialde batzuetan.

Egoerara moldatzeko, Urdangarinek hainbat enpresen arteko ekintza bateratua proposatzen du, horretarako nolabaiteko ezintasuna antzematen duen arren. Horrenbestez, analista ekonomikoak hala dio: "Nolabaiteko ezgaitasuna izan arren, ekintza bateratuak behar dira, luzaroan iraungo dutenak, enpresa bakoitzak bere izaera juridikoari eutsita, baina zenbait konpetentzia zehatz partekatuta".

makina-erremintaren sektoreko Europako sei estatu garrantzitsuenak biltzen ditu: Alemania, Italia, Suitza, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainia.

CECIMok 2009-2010 sektorearentzako "biurteko beltza" izango zela ohartarazi zuen, bai ekoizpenean, bai kanpo merkataritzan. Hala, 2008an Europan sektoreak lortutako emaitza onen ostean 2009ko eta 2010eko eboluzio negatiboa iragarri zuten. 2008an makina-erremintaren sektoreak jarrera oso positiboa izan zuen Europan eta %8 hazi zen. Baina 2009an eta 2010ean aldagai guztiek behera egin dute. 2008an 21.382 milioi euro ekoitzi ziren eta 2010ean, aldiz, 18.159 milioi aurreikusten da, hau da, ekoizpena %15,1 jaitea. Hala ere, erakunde horrek 2011n Europako ekoizpena %8,4 haziko dela aurreikusi zuen, 19.763 milioi euro-tara iritsi arte. Esportazioei nahiz barne kontsumoari dagokienez, CECIMok %12ko jaitsiera aurreikusi zuen 2010ean: 14.060 milioi eurotik 11.058 milioira. Amaitu berri den 2009ko datuen arabera, oraindik ofizialki eskura ez izan arren, aurreikuspenak beteko direla

dirudi. Baita 2010ekoak ere, joera positiboagoa izan daitekeen arren.

Lehen seihilekoa txarra, bigarrena txarragoa

2009ko lehen seihilekoko datuak dagoeneko eskura daude eta, horien arabera, urteko lehen erdia kaxkarra

izan zen sektorean eta, zantzu guztien arabera, bigarren erdia okerragoa. Hauxe da 2009ko lehen seihilekoari buruz analistek duten iritzia orokorra: esportazioek urteko lehen sei hilabeteak salbatu zituzten, 2009aren hasieran espero baino gehiago; inportazioek, aldiz, deskalabru izugarria izan zuten.

Horrenbestez, AFMren beraren arabera, 2009ko lehen seihilekoan, esportazioak 295 milioi eurokoak izan ziren eta horrek esan nahi du %10,5 egin zutela behera aurreko urteko aldi berarekin alderatuz gero. Jaitsi arren, zenbait adituk datuak positibotzat jo ditu seihileko horren krisialdi testuingurua kontuan hartuta. Datuak taulan dituzu. Inportazioak, bestalde, oso nabarmen murriztu ziren: 107,6 milioi euro, 2008ko aldi berarekin alderatuta %58 gutxiago.

Ondorioz, 2009ko lehen seihileko salerosketa 402,6 milioiokoa izan zen guztira. Horrek esan nahi du 2008ko lehen seihilekoan baino %31,8 gutxiago saldu eta erosi zela. Azkenik, 2009ko bigarren seihilekoaren datu ofizialak oraindik jakinarazi ez badira ere, lehen seihilekoa baino okerragoa izan zela dirudi. ■

Salerosketak

Esportazioak (milioi euro)

Alemania (83,9)
Frantzia (28,9)
Txina (24,1)
Italia (23,8)
Errusia (20,9)
India (13,2)
Portugal (10,6)
Mexiko (10)

Inportazioak (milioi euro)

Alemania (27,6)
Italia (25,2)
Australia (8)
Japonia (7,4)
Suitza (6,3)
Txina (6,1)
Taiwan (6)

*2009ko lehen seihileko datuak.

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatuz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Garapenerako sarea eta elkarlana Euskal Herriko Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa
Garapenerako sarea eta elkarlana Euskal Herriko Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

“Txaparro”k ez du segiko

ZARAUZKO (Gipuzkoa) herri aldizkaria da *Txaparro*, euskara hutsean argitaratzen dena. 2001eko irailean jarri zuen abian Txaparro Kultur Elkar-teak eta duela egun batzuk jakina-razi dute 125. zenbakia azkenekoa izango dela, oraingoz behintzat. Doan banatzen zen postontzietan eta ezinbestekoa izan dute erakun-de publikoen diru-laguntza. Zarauzko Udalaren diru-laguntza izan dute batik bat eta elkarteko kideen hitzetan, azken bost urtee-tan murrizten joan dira kopuruak, eta erabaki larria hartu dute. Dena



den, elkarteko kideek adierazi dute Txaparro Kultur Elkar-teak aurrera jarraituko duela eta horri bultzada ematen ahale-ginduko direla.

Ez da atea ixten dituen lehen aldizkaria.

Gen Gasteiz dugu gogoan eta baita Azkoitiko (Gipuzkoa) *Maxixatz*en ere. Diru-laguntzen murrizketek gogor jo die aldizkariari eta lehen-dik ere nekatuxe zebiltzan indarrak ahuldu egin dira.

Itxi zaharra ez den Azkoitiko aldizkariako kide batek esandakoa daukat gogoan: “Aldizkaria utzi behar izan dugu, ezinean genbiltzan, baina euskara elkartean haus-

narketa egiteko gogoia sumatu dut. Egia esan, uste dut ondo etorriko zaigula geldialdia”. Arnasa hartu eta pentsatzeko garaia.

Aurten 200.000 euro?

ALBERTO CATALÁN Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseila-riak, Xabier Azanza Euskarabide-ko zuzendaria lagun duela, adierazi du 2010ean euskarazko hedabi-deek 200.000 euro jasoko dituzte-la. Iazkoa, alegia diru-laguntzak %96 murriztea, krisiaren eragina izan omen zen.

Hedabideetan ez dut kolpeko erantzun asko ikusi. Beharbada inork sinistu ez duelako.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Gasteiz-76

Estatu terrorismoaren biktimak

Martxoaren 3an 34 urte beteko dira Gasteizko langileen sarraskia izan zenetik. Triskantza Francoren esanetara zegoen Manuel Fragak zuzendu-tako polizia frankistak antolatu zuen. Sarraskiak ondorio hauek utzi zituen: bost langile hilda, zauri larriak askori, milaka langile izututa, eta greba orokorrean hainbat bozeramale atxilotu zituzten. Greba 1976an egin zen, langileen lan eta gizarte baldintzak hobetzeko. Langile batzarrek egunero heldu zioten grebari, batik bat Zaramagako elizan. Batzar horie-tako batean, aurrez prestatuta, polizia eliza gaseztatu zuen, eraso eta tiro egin zuen. Izua zabaldutako zen eta bost grebalarik hil zituzten.

34 urte geroago, arduradunek, besteak beste orduko ministro Manuel Fragak (orain PPko presidentea) eta Martin Villak ez dute erantzukizun penalik eta politikorik. Egunez egun ETako biktimei omenaldiak egiten zaizkie, baita Gasteizen ere. Ia alderdi politiko guztiek har-tzen dute parte horietan, eta bereziki PPK eta PSOE. Alabaina, biolentziaren ondorioak manipulatu dituzte, ahaztuz eta bazterrean utziz frankismoaren, estatu terrorismoaren, A hirukoitzaren eta GALen biktimak. Gauza bera gertatu da Gasteizen 1976an estatu terrorismo-ak, bala hiltzaile frankisten bidez, masakratutakoekin. Ahazteaz eta baztertzeaz gain, ez dira estatu terrorismoaren biktimatzat hartu. PSOE-PPko politikariok eta Maixabel Lasa: Gasteizen, Euskal Herrian bezala, biktima bakarrak ez dira ETarenak, alegia Buesa eta besteak. Estatu terrorismoaren biktimak ere badaude. 1976ko Gasteizko langi-leak, esate baterako. Eta beste hainbat abertzale.

Juan Mari Arregi

Arantxa Urretabizkaia *El Correo*n esanak: “Gero esango dute euska-raren kontua politizatua dagoela, kolore politiko zehatzegia eta nabarmenegia duela. Kolore baka-rra, gainera.

Bada, horrela balitz, erantzuki-zun nagusia ez litzateke euskaldu-nona, ezta euskaltzaleena ere, eus-kaldun izan nahi ez dutenena baizik, ez baitio inork inori euska-ra ikastea debekatzen.

Are euskararen monopolioa salatzen dutenei, ez die inork urte-ko euskal nobelarik hoberena idaztea debekatzen, edo bertso-rik zorrotzena botatzea galarazten. Euskararen mundua ez du inork bahitu. Hori bai, askori ez zaio interesatu izan.

Edo, okerrago, askok pentsatu izan du mundu hori zaharkitua zegoela, iraganarekiko nostalgikoz betea.

Gehiegizko politizazioa edo are euskararen diktadura salatzen dutenek euskaraz ikasiko balute, anitzagoa izango litzateke gure mundu txiki, adoretu eta nekatu hau”.

Bultzada Hernani eta Oiartzuni

USURBILGO HERRITARREK bultzada ederra eman diote zaborren birziklapenari joan den asteburuko erreferendumean atez ateko bilketa sistemari emandako baietzarekin. 4.915 herritarreko erroldaren %70,23ko partehartzearekin, %55,82 atez atekoaren alde agertu zen, eta %42,64 zabor organikoa biltzeko bosgarren edukiontziaaren alde.

Eta herritarrek bi arrazo nagusi-
rengatik eman diote baietza atez atekoari: bat, Zubietako erraustegi proiektua gainean dutelako; bi, atez ateko bilketa sistema eraginkorra delako eta zaborraren %82ko birziklatzea lortu duelako Usurbilen.

Baiezko honek bultzada emango die Hernani –maiatzaren 9an dira hastekotan– eta Oiartzungo atez atekoari eta areagotu egingo du beste eskualde batzuetan egiten ari diren azterketak, berbarako Debagoiengan. Eta, aldi berean, birpentsarazi beharko luke erraustegi proiektua edo, gutxienez, berau indarrean jartzeko eguna atzerarazi, Usurbilgo udalak eskatu duen moduan. Eztabaida bizi-bizi dago Hernanin eta Oiartzunen, eta neurri apalagoan Gipuzkoa osoan. Udal eta foru hauteskundeetarako urtebete pasatxo geratzen denean, argi dago zaborren gaia izango dela debaterako gai garrantzitsuenetakoa.

Eztabaidak badu arriskurik, batez ere ikusita orain arte atez atekoaren aitzindari ANVk gidatutako hiru udal direla, eta sistema honen aurkakoek izan dezaketelako eztabaida euskal gatazkaren mamuarekin kutsatzeko tentaldirik. Hori da saihestu beharko litzatekeena.

Zaborraren arazoa eta debatea, funtsean, mundu mailakoa da eta, jasangarritasunaren kontzientzia areagotzen den neurrian, zaborraren



Edukiontzia agur esaten dion kartel bat Italian, ASIA Napoli enpresarena.

na ere pizten da. Italiarrak dira aitzindari atez ateko bilketan eta han 1.800 herritik gora ari dira molde horretan, besteak beste 140.000 biztanle dituen Salerno. Katalunian ere jadanik dozenaka ari dira molde honetan (mundu mailako atez atekoari buruzko informazio gehiago ARGIAren 2.216 zenbakian).

OSO KORAPILOTSUA da gaia, zalan-tza barik, eztabaida pausatua eta zibikoa behar duena, ondoren erabakirik egokienak hartu ahal izateko. Mugarik gabeko ekonomi garapenaren ereduak, zaborrarena saihestezinako arazotzat aurkeztu ohi digu. Eta horren baitan, badirudi zaborra ez dela norbanakoen arazo, administrazioarena baizik: herritarrok zaborra sortu eta administrazioak kudeatu, hau desagerraraztea magia kontua bailitzan, gure begien bistatik kenduz (biltegietan edo erraustuz) arazorik ez balego moduan. Zelanbait, ba dirudi etxetik zabor poltsa ateratzean, hor bukatu dela gutako bakoitzaren arazoa.

Eta ekologiak hamarkadatan egindako lanaren bultzadaz, mundu finitoaren irudia zalantzan jartzen zaigunean, zaborraren arazoa indar handiz azaleratzen zaigu, besteak beste, ez delako industriak edo nekazaritzak bakarrik sortzen duen zerbait, gure etxeetan ere sortzen dugulako.

Atez atekoa ez da zaborraren konponbidea, irtenbiderako bide bat baizik. Konponbidea jasangarritasun ereduarekin lotua dago, eta egungo garapen ereduaren eraldaketarekin. Bestela zaborrarenak ez du konponbiderik, mundu finito honek konponbiderik izango ez duen moduan. Bai, gaia oso orokorrera eramatea da, baina abiapuntua hor da, “zero zabor” filosofia, maila guztietan ahalik eta zabor gutxiena sortzea eta birziklapena eta berrerabilpena gure kultura eta produkzio moldeetan txertatzea; azken finean zaborra ere gure arazo eginez, eta ez administrazioarena bakarrik.

Helburu handi horietarantz ez da bide bakarrik, jakina, baina ezta saihestezin ere –zientzia adibidez–. Herritarren aldaketarekiko erresistentzia begi bistakoa da arazo honetan eta normala. Kezkagarriena ordea, oposizio zorrotzena erakunde handienetatik etortzea da eta hor aldaketarekiko erresistentziaz gain, interes ekonomikoak ere egon daitezke, 400 milioi euroko edozelako proiektuk hemen eta Jamaikan interesak eta loturak sortzen dituelako. Bestela ezin da ulertu, esate batera, hedabide eta politikari hainbaten interesa atez atekoa herri handietan bideraezina dela erakusteko. Frogarako aukera behintzat izan beharko litzateke, batez ere munduko beste hiri handi batzuetan posible denean.

SU-ETENAK bultzada oso handia emango lioke Altsasuko Adierazpenaren bideari. Esaten da su-etanak jadanik ez duela inongo baliorik, baina ez da egia. ETak bat egiten badu ezker abertzale historikoak hartutako bidearekin su-etena da horren ondorio logikoena, atentatua egin eta ondoren Batasunak berau gaitzestea baino eraginkorragoa.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Musulmanez gain alemanak ere soberan Suitzan

Suitzako herritarrek 2009ko azaroan erreferendumez erabaki zuten beren paisaia ez dela meskiten minareterik ikusiko. Baina atzeritarrekiko mesfindantza ez da mugatzen musulmanetara. Ekialdeko etorkinez gain gaizki ikusiak dira... alemaniarrek berak.

NOLA ULERTU ALENA GERBER bezalako teleaurkezle *katxarro* bati boikota egiteko deia? Zuricheko telebista batean ari den komunikatzaile aleman honen kontrako kanpaina egin berri dute Zentro Demokratikoaren Batasuneko (UDC frantsesezko sigletan) gazteek... Suitzako dialektoan ari ez delako.

Euskalkiez eta euskara batuaz hainbeste eztabaidatu dugun euskaldunontzako puntu erakargarri asko baditu albiste horrek. Baina, gainera, Suitzan atzeritarrekiko dagoen giroaren erakusle da.

Izan ere, nahiz eta Suitzak dituen lau hizkuntzen artean –frantsesa, italiera eta erromantxea dira beste hirurak– alemana den nagusi, horrek ez du esan nahi suitzarrek oso garbi ez dituztenik beren konfederazioaren eta atzeritarren arteko mugak. Alemania eta Austriarekikoak, besteak beste.

Gauzak gehiago zehazte aldera, Suitza germanikoan hitz egiten dena alemanaren hizkelgi bat da, *Schwyzerdütsch*. Eguneroko bizitzan usu erabilia den arren, harreman formaletan –prentsa eta publizitatea barne– aleman estandar edo batua darabilte, *Hochdeutsch*. Baina Alena Gerberren pasadizoak erakusten duenez, hedabide ahostunetan dialektoak bere lekua bide dauka. Bai behintzat ikus-entzuleek

beren hurbilekotzat dauzkaten komunikatzaileak bereizteko adina.

Alemaniatiko etorkinen kontrako haserrea pertsonaia mediatiko horietatik harago doa. UDCK salatu du Zuricheko unibertsitatean “mafia alemana” indartu dela. Bernako unibertsitatean, beriz, ikerlari aleman gazte batek oposizioetan lanpostua irabazi zuela eta berriro aipatu da “alemanen inbasioa”.

Andreas Zumach-ek *Die Tageszeitung* egunkarian idatzi duenez, Alemaniako gobernuak uste zuen kontu hau baretuko zela meskita musulmanei buruzko erreferenduma igarotakoan. Ez da hala jazo, ordea. Minareteak debekatzea lortuta, UDCK segitzen du alemanen kontrako gurutzean, ziur aski estrategia aldetik baliagarri zaiola-koan.

Aurreko urratsa, musulmanen kontrako kanpaina, ondo atera zaio eskubi suitzarrari. UDCKoek asmatu dute Suitzako jende askoren baitan fede edo kultura musulmaneko atzeritarrekiko hausnartzen zen ezinegona. 7,7 milioi biztanleen artean 400.000 musulman ez dira gehiegi, baina bai nonbait nazio nortasun-kontuetan hain fidakaitz direnentzako. Eta 2009ko erreferendumean mesfidantza horretara hurbildu ziren beste hautu askotan liberal edo are ezkertiar agertzen

Barry Werkmeister-en *Radio Arabella* blogetik hartutako argazkian, Suitzako telebistan famatu egin den Alena Gerber aurkezle alemana kazetariarekin tontakeriatan. München sortua, espektakuluaren ingurugiroan mugitu zen telebistara iritsi aurretik. UDCKo gazteen presidente Erich Hess-ek deklaratu du ezin onartuzkoa iruditzen zaiola Gerberren hizkera, Zuricheko telebistan azaltzekotan bertako dialektoan aritu behar duela. “Niri bost axola zein ederra den. Doala Alemaniara lanpostu baten bila”. Aurkezleak, berriz, zin egin du ikasten ari dela Suitzako doitzera. Ezkerrean ez datoz denak bat aferra honetan. Berdeetako bi kontseilari kexu azaldu dira inmigrazioa sortutako kalteengatik, salatuz Zuriichen iadanik etxe falta nabarmena dagoela.

diren asko. Nahiz eta UDCK bere garaipentzat aldarrikatu emaitza.

Erreferendumak denetako irakurketak sorrarazi ditu. Minareteak debekatzea ikuspegi askotatik baloratu daiteke, hasita Suitzako paisaia-eran eragin lezaketen estrabagantzia-tik. Beste batzuek, aldiz, nabarmendu dute Suitzak mendetako tradizio laikoa berretsi duela horrela.

Bakar batzuek azpimarratu dute onerako bezala txarrerako suitzarrek demokrazia zuzena usatzeko daukaten bertutea. Erreferendumak sarri eta arazo askoren inguruan burutzen dira Suitzan, konfederazio osoan bezala herri bakarrean edo kantonamenduka. Horretan ere eredugarria Helvetia zaharra.

Erdi mailakoak ikaratu

Suitzarren alemanekiko ezinegona beste erreferendum batekin dago lotuagoa minareteekiko aferarekin baino. Iaz bertan, otsailean, beste herri galdeketa nazional batean suitzarren %60k ebatzi zuten konfederazioak berretsi egin behar zituela Europar Batasunarekin langileen oztoporik gabeko zirkulazioaz sinatutako akordioak.

Otsaileko kanpaina hartan UDCK ezezkorearen aldeko kanpaina lata egin zuen. Herritarrei boza eskatzeko hormetan eskegitako afi-



lako ikasketa maila hobez hurbildu diren alemanen mesedetan. UDCren agerkaritzat jotzen den *Die Weltwoche*ko kazetari Markus Sohm-ek esan du “suitzar izatea bat da eta alemana izatea bestea; hori sentiarazi egin behar zaie alemanei”.

Gauza da 2006an 18.000 aleman kokatu zirela Suitzan, eta geroztik 177.000ko kopurua osatzeraino ugaritu direla. Proporzioan gehiago dira ofizio batzuetan, medikuntzan esate baterako. Konfederazioa sendagile faltan dabilenez, tituludun alemanek soldata eta bizi maila onak aurkitzen dituzte bertan. Suitzako medikuen %95 biltzen dituen federazioan %10 omen dira germaniarrak, 28.000.

UDC orain klase ertaineko etorkinetan ari da zentratzen. Medikuez gain, komunikabideetan edo irakas-kuntzan sartzen ari diren alemanetan, alegia. Saltsa galanta antolatuta zioten Silke Adam-i. Komunikazioan ikerlari ari den 33 urteko emakume hau Bernako unibertsitateko postu baterako lehian nagusitu egin zitzaizen beste 31 hautagairi, hauetatik asko atzerritarrak gainera.

Honako kalkulu hau egina duke UDCK: minareteei buruzko erreferendumean lortu badute mobilizatzea botoemaile ahulena, kanpotar paperik gabekoen eta lapurren beldur den langile jendea, alemanen inbasioaren kontuarekin mugiaraziko dituela klase ertainetakoak.

Bitartean, Suitzan segitzen dute anitz gauza erreferendumez erabakitzen. Martxoaren 7an daukate hurrengoa. Gu baino gehiago dira. ■

xak historiarako geratu dira. Batean eskuindarrek erakusten zituzten atzerritarren eskuak harripazka pasaporte suitzarrak harripatu nahian. Bestean ardi zuriak ziren —gure autoen ipurdietan ageri diren latxak gogoratuz— larri zebiltzanak estranjeriatik etorritako ardi beltzek Suitzatik kanporatu nahi zituztelako.

Hirugarren kartel batean Suitzako maparen gainean hiru bele oso beltzek mokoka kosk egiten zioten herrialdearen ikurra den gurutze zuriari. “Atea zabaldu gehiegikeriei? Ez!”. Zozoenak ere kanpaina ondo uler zezan, ornitologo eskuindarrek esplikatu zuten nolaz beleak erasokorak eta lapurrak diren. Ohoin fama egotzi nahi zaien errumanian

edo bulgariarrenanako paralelismo polita.

Erreferendum hura galdu zuen eskuinak, ziurrenik *establishment* helvetiarrak gogor bultza zuelako legea pasatzearen alde, Europarekiko lehen baino isolatuago geratzeko beldurrez, negozioak beti baitira negozio. Hala ere, atzerritarrekiko errezeloak bere bidean darrai.

Die Tageszeitungen bildu dituzte Zuricheko jende erreferentziatzko batzuen erreakzioak. Roger Schwinskiko kazetariak, orain arte liberal fama zuenak, Alemaniatic etorri berriei eskatzen die bertako dialektoa erabili dezatela. Rudolf Strahm diputatu sozialdemokrata, berriz, kexu da kualifikazio txikiko suitzarrak lanik gabe geratzen dire-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Inma Errea

In FB we trust

Horrela deitzen da Facebooken bertan Youssef batek frantsesez sortu duen taldea. Sortzailearen aldarrikapenari ironia dario, eta taldeak dozena bat kide baino ez du bildu. Hortik ondorioztatu ahalko genuke jende asko ez dela FBrekin fidatzen. Hala ere, sare horretan zenbat lagun dabilen besterik ez da ikusi behar, kontrakoa jakiteko, hau da, jendetza direla Facebooken nola-baiteko konfidantza dutenak.

Euskal Herrian azkenotan hainbat eztabaida piztu dira Facebooken inguruan, eta hori, eztabaidarik izatea, interesgarria da, orain arte nahiko modu arinean aritu baita gutako anitz Facebooken, batez ere, gazteagoen artean. Sarean, Facebooken edo beste edozein gunetan, den-dena esaten eta den-dena erakusten ibiltzearen arriskuaz jabetzeko ordua iritsi zaigu. Bazen garaia.

Ni ere moderno samarra naiz, eta badut kontua Facebooken, baina hasieratik bertatik ez naiz oso eroso sentitu bertan. Ez dut erabat aukera baztertzeko: nire deserosotasun mailak koska bat gora eginez gero, bertan behera utziko dut harpidetza. Momentuz, urrun bizi diren hainbat seniderekin gutxieneko loturari eustea estakuru, hor segitzen dut, baina bertara sartzen naizen bakoitzean, hainbeste eskaera eta hainbeste informazio eta irudi –maiz hutsalak– topatzeak sortzen dizkidan larridura eta nahasmenduarekin batera, hainbat galdera datozkit burura.

Jakin-min handiena sare horien arrakastaren zergatiak pizten dit. Zer dela-eta horrenbeste jende halako sareei atxiki, eta zer dela-eta hain atxikimendu handia?

Erantzun koherenterik ez dut topatu, baina funtsean, gizon-emakumeon sakoneko izaera egongo da seguruenik: Facebook eta enparauek jendartean bizitzeko eginak garelako frogatzen dute. Hori, ordea, ez zait arrazoi nahikoa iruditzen sare sozial horiek hain menta handia izateko.

Ikusminak, aldiz, edo kuxkuxean ibiltzeko joerak, nondik begiratzen diogun, zerikusirik handia izan dezake arrakastan. Internetek, berez, pagotxa handia dirudi, lehen begiratuan, edonoren jakin-nahia asetzeko, eta Internetek tresna bikaina eskaintzen du, bes-




teen bizitzen berri jakiteko. Facebook hori da, besteak beste: leiho zabal bat, halakoa non besteak zertan ari diren zelatatzen ahal baitugu, garai batean herri txikietan hainbatek etxeko leihoetatik egiten zuten modura. Orduan, etxeko leihoetatik kanpoko bizitza barrandatzeko zutenek errezele gibelean gorderik egiten zuten. Eta beti ez, baina gehienetan, haien burua salatzen amaitzen zuten. Errezelen mugimendu leun bat nahikoa zen. Kuxkuxero haiek nola, Facebooken ere ezin da espiatu ikusia izan gabe. Baina, jakina, batzuk trebeagoak izaten dira besteak baino, disimuluan aritzeko orduan, eta errezel guztiek ere ez dute berdin estaltzen.

Facebook, bestalde, gizon-emakumeon bestelako joeren salatari ere izan daiteke. Esate baterako, uste baino askoz jende gehiagok du gogoko besteen aurrean bere burua nabarmentzea, eta hori ederki profitatzen dakite hala telebistek nola sare sozialek.

Etxeko leihoetatik kanpoko bizitza barrandatzeko zutenek errezele gibelean gorderik egiten zuten. Eta beti ez, baina gehienetan, haien burua salatzen amaitzen zuten. Errezelen mugimendu leun bat nahikoa zen. Kuxkuxero haiek nola, Facebooken ere ezin da espiatu ikusia izan gabe. Baina, jakina, batzuk trebeagoak izaten dira besteak baino, disimuluan aritzeko orduan, eta errezel guztiek ere ez dute berdin estaltzen

Facebooken arrakastaren arrazoiak horiek izan edo ez, seguru da haren asmatzaileek aski ongi neurtu dutela dena, eta neurtu dituzten gauzen artean gizon-emakumeon *abulezia* horiek hartu dituztela kontuan. Facebooken atzean nor dagoen ez da seguru, baina segurutzat jo dezakegu tresna ez dela asmatu, soilik, herritar arrunten gogoak betetzeko. Horregatik, *Anaia Handia* izanik edo izan gabe, hobe dugu leihoa zabal-zabal ez edukitzea. Eta errezelek ere badute xarma. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Saiaz Getaria hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Roke Deuna, 25
Getaria GIPUZKOA

www.saiazgetaria.com

1



Txomin Etxaniz txakolina

Txakolindegira bisitaldia
8 lagunentzat

C/ Eitzaga Auzoa, 13
Getaria GIPUZKOA

www.txominetxaniz.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Inguru Abentura

3 bikoteentzat
puentinga

San Juan kalea, 18
Albeniz, ARABA

www.inguruabentura.com

4



Kemen Lertxundi, Norman, Dirty Pink Ladies, Jimmy Arrabit eta Organiks

2 CD sorta opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

ELLAURI HOTELA

• Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

CD SORTA - BAGA-BIGA

• Juan Jose Astibia Olano (Leitza)
• Joxe Inazio Mantzisor (Zumaia)

URTEAGENDA 2010

• Joseba Berriotxo Alberdi (Zornotza)
• Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
• Jose Maria Betelu Azurmendi (Elgoibar)
• Jesus Gonzalez Esteban (Oñartzun)

EGUTEGIA 2010

• Regina Tolosa Agirrezabala (Amezketza)
• Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
• Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
• M^a Angeles Azpiroz Harizurieta (Barañain)
• Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

ILLIMANI

• Zaldibarko Udal Liburutegia (Zaldibar)
• Josu Belar Unamuno (Arrasate)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Ordu asko

beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan...



eta denbora gutxi

gizarte eta kultur jarduetarako, aisialdirako...

Zentzuz eta berdintasunez banatu
dezagun gure buruarentzat, lagunentzat,
famiarentzat eta lanerako dugun denbora.

MARTXOAREN 8a.
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA



EMAKUNDE
EMAKUMEEN ERAKUNDEAK
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Barrio Jentziak eta erakunde erakundeak
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco